


05

Bizitza jasangarri
eta bidezkoak,
Mugarik Gaberen apustu



MUGARIK GABE



Garapenerako Lankidetzza GKE den Mugarik Gabetik (mundu mailako) globala eta interdependentea den garapenean sinisten dugu. Giza garapen osoa lortu nahian, hau da, emakume, gizon eta herrialde desberdinen artekoa zein datozen belaunaldientzat iraunkorra izango dena, urko dugun ingurutik garatzen dugu lana, gero gure mugatik zabaltzen dugularik.

ARABA

"Itziar" Elkarteen Etxea - Zalburu Plaza z/g, 01003 Vitoria-Gasteiz

araba@mugarikgabe.org

Tel.: 945 277 385 / 656708617

Fax: 945 277 385

BIZKAIA

Vicente Garamendi taldea, 5 P.B. 48006 Bilbao

bilbao@mugarikgabe.org

Tel.: 94 415 43 07

Fax: 944 166 796

GIPUZKOA

Katalina Eleizegi kalea 46, behea, 3, atea 20009 Donostia

gipuzkoa@mugarikgabe.org

Tel.: 943 445 977

Fax: 943 445 977

www.mugarikgabe.org

BIZITZA JASANGARRI
ETA BIDEZKOAK,
Mugarik Gaberen
apostu handi bat





Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionalela (CC BY-NC-ND 4.0)

Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago. Edukia libreki zabaltzea, kopiatzea eta birbanatzea baimentzen da edozein bitarteko edo formatutan, beti ere, egiletasuna aitortzen bada. Ezin da erabili xede komertzialarekin, nahastu edo eraldatu egiten bada edo materiala oinarri hartuta sortu egiten bada, ezin da eraldatutako materialik hedatu, ezin da lizentziak baimentzen duena legalki burutzea mugatzen duen neurri teknologikorik edo legezko akaberarik erabili.

Lizentzia osatua: https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_ES



*Teoriak jendea aldatzen duen efektuak sortzen ditu,
Baita mundua ikusteko haien modua ere.
Era honetan, munduan gertatzen ari dena
Interpretatzeko teoriak behar ditugu,
Nola eta zergatik harremantzen garen azaltzen dutenak (...)
Teoria horiek praktikan jartzeko aplikazioak behar ditugu...
Teoriak egiteko modu "zuzen" bakarra dagoenaren
Ideia deuseztatu behar dugu.*

Gloria Azaldua, (1990: 25-26)

1. Sarrera




Hastapenetatik, Mugarik Gabek zalantzan jarri du hazkunde ekonomikoan oinarritutako garapen eredia. Ondorioz, garpenerako gobernuz kanpoko kooperaziozko erakunde gisa, ONGD, logika horri erantzuteko egin diren lankidetzak gabeko ekintza guzti horiek negatiboki eragin dute beste herri batzuetan. Nazioarteko elkartasunean dugun esperientziak eraman gaitu halabeharrez desberdintasunen zergatiak aztertzeraz, elkarren menpekoezkoak diren arazo globalak aitortzeraz, eta ingurumen zein justizia sozial handiagoo lortzeko egoera hori berrikusiko duten proposamenak pentsatzeraz.

Hiru hamarkadetan zehar emakumeen erakundeak laguntzeko prozesuak babilbestearen alde egin dugu apustu, Latinoamerikako baserritar zein indigenak; Euskal Herriko mugimendu sozialak lagundu, eta amestutako eraldaketa soziala erraztuko duten hezkuntzako prozesu propioak sustatu ditugu. Nabarmentzekoa da azken urteetan, patriarkatuaren eta kapitalismoaren ondorioak salatzeaz gain, alternatibeen eraikuntzan laguntzen apalki egindako ahalegina.

Denbora horretan baldintzatu gaituen gertaeretakoa bat krisia izan da, hein handi batean puntu ezberdin batean kokatu gaituena. Dena aztoratu duen ekintza bat izan da, oraingoan "aurreratutako ekonomiak" deritzenak ere astindu dituen, egoera pribilegiatu batez gozaten genuela uste genuenak ere. Gure azalean bizi izan dugu atzerapen basatia eskubide sozialei dagokienean, desberdintasunak maila askotan biderkatu direlarik. Dena dela, ezin dugu lehen lerrora ekartzeari utzi Ongizate Estatu bera lehendik oinarritzen zela naturaren esplotazioan, Hego globalaren espoliazioan eta emakumeei atxikitako ordaindu gabeko lanen ikusezintasunean. Azken urteetako errealitateak geroz eta krudelagoa den gerrengatik ezaugarritua jarraitzen du, mota guztietako konbultsio eta altxamenduengatik, eta giza ekintzak oinarri dituen hondamendi naturaletik.

Optika neoliberaletik, egungo krisia 2007an sortu zen. Gure ikuspegitik, krisia finantzaketa lehertu baino askoz lehenago hasi zen. Salatzen genuen moduan, gaur egun salatzen jarraitzen dugu, krisi sistemiko eta dimentsio ugaridun baten aurrean aurkitzen gara. Askok dira abizen posibleak: politikoa, ekologikoa, elikadurarena, energetikoa, zainketena, eta abarren zerrenda luze batek baieztatzen du krisia ez dela bizitzaren jasangarritasuna arriskuan jartzen duen prozesu multzoa baino.

Planteamendu horretatik abiatuta, badakigu neoliberalismoak krisia gainditzeko eskaintzen dituen errezeta horiek ez dutela balio. Ez ziren gai izan Latinoamerikan gauzatutako Ezarpen Estrukturalerako Programak, ezta gaur hemen proposatzen dizkiguten austeritate neurriak ere, gaizki ulertuak. Ez dira ez dutelako jotzen arazoaren benetako errora, ez dute bilatzen pertsonak salbatzea, sistema propioa mantentzea baizik. Oinarritzko zerbitzu publikoen pribatizazioak, lan erreformak, gastu sozialen murrizketak, enpresa handientzako zergak gutxitzea, pobreziaren feminizazioa...

8 

Finean, eliteen onurarako giza sakrifizioak. Ezbairik gabe, suntsitzaileak izan dira ondorioak, eta eszenatokia ez da oso itxaropentsua. Alabaina, ezin dugu ukatu krisiak, zorionez, gauzak egiteko modu berriak imajinatzeko dituen agente eta pentsamendu espazio berrien ugaritzea ekarri duela.

Mugarik Gaben beti pentsatu dugu hemen eduki dugun garapena ez zela esportagarria, ez eta gainontzeko populazioarentzako posiblea. Horregatik, ekologia politikaren irizpide zaharraren aplikazioa, "globalki pentsatu, lokalki jokatu" etengabea izan da.

Beti jarri dugu kolokan gure bizi modua eta gure neurrigabeko kontsumo aldaketen beharra, planetako baliabideak agortzen ari baita. Aldaketa orok du landu beharreko osagai pertsonal bat, sozial eta politikotik harago. Beharrezkoa da oraina eta etorkizuna erantzukizun unibertsal batekin bizitzeko ikuspegia, existitzen den interdependentzia globalagatik. Ulertu beharra dago, egun bizi garen moduak, beste pertsona batzuen bizi baldintzetan eragiten duela, gutxiagotzea planteatzea ekarri digula proiektu politiko gisa (Desazkundearen paradigma berriaren harira), Mugarik Gabeko estrategiara sinpletasun boluntarioa txertatzearen bidez.

Dudarik gabe, krisi ekologia hobeto bizitzeko aukera bat da, Jorge Riechmanek esaten duen bezala, zeinetan elkartasun harremanak desberdintasunak eztatzen dituzten. Bizi komunitatearen berreskurapen gaitasunak eta gizateriaren ongizateak, biosfera osasungarri baten zainketaren menpe daude, bere sistema ekologiko guztiekin, landare eta animalia aniztasun aberatsarekin, lur emankorrekin, ur puruekin eta aire garbiarekin. Lana birpentsatzeak, sozialki beharrezkoak diren lanak erdigunean jarritz, giza erreproduktzioari lotutako izugarritzko lan guztiak ikusgai bihurtuz. Elkartu behar dugu, natu-

rarekiko, giza eskubide unibertsalekiko, justizia ekonomikoarekiko eta bake kulturarekiko errespetuan oinarritutako gizarte bat sortzeko, globalki jasangarria izango dena; ezinbestekoa da.

Gailentzen diren produkzio eta kontsumo patroiak dira igarotzen ari garen krisi sistemiko larriaren adierazpideetako batzuk; ingurumenaren suntsipena, baliabideen agortzea, klima aldaketa edo espezieen desagertzea, kasu. Garapenaren onurak ez dira modu zuzenean konpartitzen, eta aberats zein pobreen arteko arrakala zabaltzen ari da. Aurrekari gabeko giza populazioaren areagotzeek gehiegi kargatu dituzte sistema ekologikoak eta sozialak. Ezinbestekoa da jendarte globala osatzea, Lurra eta elkar zaintzea, edo gu geu eta bizitzaren aniztasuna suntsitzera arriskatzea. Funtsezko aldaketak behar ditugu gure baloreetan, instituzioetan eta bizimoduetan. Konturatu behar gara, oinarritzko beharrak ase ostean, giza garapenak nagusiki gehiago izateari egiten diola erreferentzia, ez gehiago edukitzeari.

Zibilizazio krisi honi aurre egiteko erronkaren aurrean, Mugarik Gaben sinetsita gaude ikuspegi kritikoen bateratzea beharrezkoa izaten ari dela. Alternatiben eraikuntzan atxikiezina da gizarte neoliberal eta heteropatriarkalaren zutabe nagusiak zalantzan jartzen dituzten planteamenduei arreta jartzea. Hauek, ustez, kateko katebegi ahulenetatik jaiotzen dira, Hego ekonomikoan kokatuta dauden horietatik –lparaldean Hego asko daudela ulertuta, eta Hegoaldean lpar ekonomiko bat edo beste-. Hego hauetatik sortzen dira alternatiba berriak, sekula ez dira ezerezetik ateratzen, existentzia eta ibilbide luzeko paradoxa eta ideologietatik baizik. Tinta berridun ideia zaharrak, bizitzareni paradigmak, Bizitze Ona edo Ondo Bizitzea¹ deiturikoa, kasu. Zibilizazio proposamen hau ez da teoria soila, Latinoamerikako territorio eta lurralde ezberdinetan gaur egun praktika da, duen balioa demostratuz.

Fernando Huanacuniren hitzetan²; abokatu eta intelektual aimara; Bizitze Ona (edo Ongi Bizitzea) "inguruan dagoen guztiarekin armonia eta orekan bizitzen eta elkarbizitzen jakitea da, baina ezingo dugu elkarbizi barne armoniarik ez badago. Haatik, axioma zahar bezain berri honek bi dimentsio ditu: lehengoa barnekoa da, eta beraz, identitatearena, horregatik jotzen dugu gure nortasuna berreskuratzerara; eta bigarrena, inguratzen gaituenarekiko elkarbizitza, ez da bakarrik gizateriarena, hori mendebaldeko paradigmak ere planteatzen du. Gure paradigma guztiarekin elkarbizitzarena da, gizateriatik harago, mendiarekin, ibaiarekin, inurriekin, Pachamamarekin edo kosmos aitarekin bizikidetzan".

Bizitze Onaren paradigmatari begiratzen diogu, ikusezin diren herri indigena zaharretako kosmobisioetan dituenari erroak, mende askotan zehar dominazio eta esplotazio egoerak jasan arren bizirauten jakin baitute. Desazkundeari erreparatzen diogu, fokua jartzen duelako mundu mugatu batean hazkunde ekonomiko mugagabea ezinezkotzean, auto zentratutako ekonomietan pentsatzen du. Eta, jakina, Feminismoei begiratzen diegu, gogoratzten baitigute alternatiben izaera eraldatzailea genero harremanetan marko berri bat eraikitzeko konpromisora baldintzatua egongo dela. Laburbilduz, mugimendu sozial ezberdinetatik eraikitzea bilatzen dugu: indigenatik, ekologiatik, nekazaritza mugimendutik, feministatik, eta beste askotatik. Guzti horiek baimenduko digute bizitzaren zentralitatea berreskuratzen, ez eredu bakarra proposatuz, aukera posible asko baizik. Eta guzti horiei ikuspegia erantsi behar diegu, ez bakarrik bizitza duinarena, heriotza duin bat izateko alternatibak proposatzekoa ere. Guzti horren batuketak luzatuko dizkigu Bizitza Jasangarrietarako ereduak.

Dokumentu honetan zehar, analisi honetan sakontzen laguntzea gustatuko litzaiguke. Espero dugu zuen interesekoa izatea.

2. Nagusi den bizi eredu



Gure ekintzak, izan ekonomikoak, sozialak, politikoak eta sexualak; bizi dugun kulturaren baitan, arau eta balore sozialen bidez arautuak dira. Gure bizitzeko erak denboran zehar eraikuntza historiko eta sozial aldakor bati erantzun dio. Zalantzarik gabe, ideia honek bistakoa irudi lezake; baina gogoratzea merezi duen zerbait da, sortua izan dela azpimarratzeak alda dezakegula nabarmentzeko balio dezakeelako.



Gure gizarteak, testuinguru bakoitzaren berezitasunak berezitasun, bi sistemetan sostengatzen dira: sistema kapitalista eta heteropatriarkala. Sistema hauek sistema soziala hierarkizatzen dute elementu hauek elkar-gurutzatuz, besteak beste: generoa, sexua, klase soziala, adina, etnia jatorria, azalaren kolorea, hautu sexuala... botereen (ekonomikoa, soziala, politikoa eta sinbolikoa) banaketa ezberdina eginez.

Sistema heteropatriarkalak ezarritako antolaketa sozialari egiten dio erreferentzia, baita instituzioei ere, gizonetakoak emakumezkoen aurrean gailentzea bermatzeko. Horretarako estrukturu-

ra politikoak, ekonomikoak, sozialak eta sinbolikoak baliatzen dira. Bestetik, sistema kapitalista dago, kapitalaren metaketa gidatzeko antolaketa ekonomiko. Kapitalismoaren egungo fasea, azken 40 urteetako hain zuzen, neoliberala, kontsumismoarekin eta indibidualismoarekin lotuta dago zuzenean.

12 

Ikusiko dugun bezala, bat datozen bi sistema dira, elkar behar eta indartzen direnak. Biek behar dute existitzeko esplotazioa. Pertsonen eta planetaren menpekotasun eta esplotazioan sustengatzen dira. Genero(en)³ desberdintasunek bereziki emakumeak esplotatzea dakarte, nahiz eta desberdintasun hauek ere modu berezian eragin beste faktore batzuk medio, etnia, arraza, adina, hautu sexuala, erlijioa edo jatorria, kasu. Elkarrekin ideologia trinko bat sortzen dute, bizitzako eremu guztietan eragiten duena, mundua ikusteko zein harremantzeko dugun modua baldintzatuz. Horrela erakitzen dira subjektibitateak, desirak, beharrak eta identitateak.

Bere betiketzerako estrategia eta mekanismo jakinak baliatzen dituzte, iku-sezinak, naturaltzat jotzen ditugunak. Horien artean daude zenbait mito edo sinesmen, datuen argitara fundamentu erreal gutxikoak; baina iruditegia ko-



lektiboan benetan barneratuak daudenak. Goazen horietako batzuk, pixkaka askatzen.

Desmitifikatzen...

Ekonomia=Merkatuak

Neoliberalismoak ekonomia merkatuetara mugatzen dela sinestarazi nahi digu, eta beraz, arretaren erdigunea diru-fluxuetan dago. Alabaina, ekonomia finantzarioa baino zerbait gehiago da. Merkatu kapitalistak instituzio sozioekonomikoak dira, botere harremanak artikulatzen diren gunek, subjektu konkretuak pribilegiatzen dituztenak.

Merkatu kapitalistak estruktura sozioekonomikoaren erdigunean kokatzen dira, haien prozesu, erritmo eta lehiakortasun logikak multzo sozialaren gainetik jarriz. Hortaz, merkatuei konfiantza ematea eta ekonomia haztea lehenetsun bilakatzen dira, horrek testuinguru politiko seguru bat eta lehiakortasuna izatea suposatzen duelarik. Zentzu horretan, segurutzat jotzen da komertzio librearen bide neoliberaletik doan gobernu hori; eta lehiakortzat, produkzio gastu txikiena lehenesten duena.

Sozialki ekonomia ikusteko eta ulertzeko modu zehatz bat onartu dugu, pentsamenduaren ekintza eta adar gisa, diru-merkatu espazioan gertatzen ari denarekin bakarrik lotuz. Modu batean edo bestean, adostasun sozial bat dago errealitatearen zein alde begiratu behar denaren inguruan.

Merkatuak sasi-erlijio batean bilakatzen dira, zeinetan aditu jakinek bakarrik uler dezaketen gertatzen ari dena eta zein den erantzun egokiena. "Arrisku-prima" edo "erreskatea" bezalako hitzak egunerokotasunaren par-

te dira; baina inork ez du sobera argi zer diren egiazki. Ez da kasualitatea, modu berean "gastu" izendatzea osasuna eta hezkuntza; eta, aldiz, "inbertsioaz" hitz egitea diru publikoa enpresetara edo bankuetara bideratzen denean.

14 

Planteamendu horretatik, beti izango dira gutxi giza eta ingurumen sakrifizio guztiak. Egongo dira bizitzaren dimentsioak eta soberan dauden bizitza osoak, ez direnak errentagarriak, edo errentagarriagoak direnak suntsituta jasanda baino. Ekonomia jendearen zerbitzura dagoela pentsatu ordez, jendea merkatuen metaketa prozesuen zerbitzura egotea proposatzen da.

Gainera, orain arte merkatuek eskuzko lan eta enplegu sorkuntza handia suposatzen zuten produkzio materiala izan dute; baina azken hamarkadetan, finantza-merkatuek, ekonomiaren finantzaketarekin, deskonexio handia



sortu dute aberastasunaren sorkuntzaren eta beronen produkzio propioaren artean. Horien kontrol eza ari da sortzen planetan populazio aberatsenaren eta pobreenaren arteko polarizazioa.

Ongizatea = BPG hazkundera



Barne Produktu Gordina (BPG) oparotasunaren adierazlea da. Mito sozial handietako bat izan da BPG igotzeko beharra, eta ona dela haztea aberastasuna pertsona guztiengana iristeko. Hori faltsua da; eta frogatua dago BPG areagotu duten herrialdeetan desberdintasunak ere igo egin dela.

Mundu mailan azken urteetan hazkunde handiena izan duten herrialdeak zeintzuk izan diren aztertzen badugu, erdia Afrikan dagoela ikusiko dugu, eta beste erdia Asian; baita desberdintasun tasa handiak dituzten herrialdeak direla ere. 2015ean Etiopia izan zen gehien hazi zen lurraldea; eta emakumeen eskolaratze tasa % 64,9 mantendu zen.

Ibai bat kutsatu eta garbitzeak BPG igotzea eragiten du; armak ekoizteak ere. Bistakoa da bizitzarekin bateragarriak ez diren produkzio jarduerak existitzen direla, nahiz eta herrialde baten kontu nazionaletara gehitu.

Halaber, garapena prozesu lineal eta unibertsal gisa ulertzen jarraitzen da. Garapena merkatu hedapenarekin konparatzen da, eta ongizatea kontsumo gaitasunarekin identifikatu. Ideia zaharrek bizirik dira: garapen bideetan dauden lurraldeek garatutako herrialdeen errezeta jarraitu behar dutela, aurrerapena lortzeko. Alabaina, egungo egoeran ikus dezakegu nola mediterraneoko herrialdeek BPGren hazkunde minimoa jasan dutela; eta aldi berean, ezberdintasunaren hazkunde handiagoa. Espainiar estatuan topa dezakegu horren adibide bat; non, azkeneko krisian zehar, biztanleriaren gehiengoak

bere diru sarrerak murriztu direla ikusi duen, eta milioi askodunek aurreko urteetako irabaziak laukoiztu dituzten.

BPG= Produktiboa dena

Produktiboa txanponen transakzioa dauden ekintza guzti horiek dira. Adibidez, familiarentzako sukaltzea ez da produktibotzat hartzen; jatetxe batean kozinatzea, ordea, bai. Beraz, merkatu eremutik kanpo dauden gertaera ekonomiko guztiak alboratzen dira. Norabide androzentrikoa historian etengabe egon da, bizitza jasangarria egiten duten lan guztiak ikusezin bilakatzea ekarri duelarik, emakumeei eta feminitateari lotuak aurkitzen direnak, merkatuak berauengandik kanpo gertatzen diren prozesuek mantentzen dutenaren ideia alboratuz.

Era honetan, pentsamendu ekonomikoak lanaren eta enpleguaren kontzeptua parekatu ditu, bazter utzita ordaindu gabeko zainketa lanak. Honek gizarte batek bere erreproduzio eta jasangarritasunerako, besteak beste, behar dituen lan ordu guztien zenbatekoa ezagutzea eta aitortzea galarazi digu. Generalitateak 2011n egindako etxeko produkzioaren inguruko ikerketa batek esaten zuen katalanek lanean ematen duten denbora globalaren % 53 ikusezina dela, etxean egiten delako, eta nagusiki, emakumeek egina dela. Ordainduzko lana balitz, katalanen BPG % 40 igoko litzake, etxeko lanen diru balorea 73.850 milioi eurokoa baita.

Ugalketa apenas edo aintzat oso gutxi hartzen den heinean, ohikoa da ekonomiak biztanleriaren jaiotasun eta zahartzaro tasa baxua arazotzat ikustea; baina ez da egiten erreproduzioaren atzeko esku-lana jasangarri egiten duten pertsonen eta baldintzen inolako aipamenik, are gutxiago bizitzaren jasangarritasunaz nor arduratzen denaz.

Pertsona guztiok behar ditugu zainketak gure bizitzan zehar, gure biziak zaugarriak baitira. Haatik, izaki sozialak gara eta gainontzekoen beharra dugu ongi egoteko (edo desiratzen dugu⁴), elkarren menpekoak gara eta. Eredu hegemonikoak "autoaskitzat" definitzen du soldata bat irabazten duena, eta "menpekotzat" berau ez duena. Elkarrekiko menpekotasuna guregain hartuz diogu pertsonak menpeko izakiak garela; eta, beraz, zainketak erantzukizun kolektibo modura hartzeko beharra dagoela. Ezin dugu ukatu bizitzako harremanen dimentsioa, ezta berauek konpondu arte itxaron ere, ardura hau pribatizatutako esfera sozioekonomikoen esku utziz, feminizatuak eta ikusezinak direnak.



Sistema kapitalista = Emakume eta gizonen arteko berdintasuna

Erreproduktiboari buruzko ikusezintasunaz gain, ez zaio begiratzen produkzio eremuan dauden emakumeei. Beraz, ez zaio arretarik jartzen merkatu esfera ekonomiko guztietara emakumeak sartzea oztopatzen duten muga ikusgarri zein ikusezinei: enplegua, kreditua, jabegoa, eta abar.

Sistemak kategoria sozialak sortzen ditu, zeinetan emakumeak gutxiengoa diren, eta beraz, ezin diren ongizate sozial komunera gizonen modu berdinean sartu, ez garelako merkatura era berean sartzen; eta horrekin lotuta, bizitza publiko honetatik eratorritako prestazio sozialetara ere ez, ordainduzkoa, laboral-ekonomikoa. Sare publiko honen parte ez izatean, zokoratu ta gaude prekarietatean bizitzera; horregatik izan da beharrezkoa oinarrizko zerbitzuen aldeko borroka mugimendu feministan (Fraser, Nancy eta Gordon, Dorothy, 1992).

Sistema kapitalista desberdintasunean oinarrituta dago egiturari dagokionez; desberdintasunean oinarrituta eraikitzen da. Hortaz, onurak eskuratze ko helburua batetik eta bizitzaren zainketa bestetik; beti izango dira kontraesankorrak. Lanaren bereizketa sexuala da emakumeak menpeko maila batean mantentzeko beste oinarrizko mekanismoetako bat.

Subjektu jakinetarako hobekuntza tarte batzuk existitu litezke, baina beste batzuen kontura lortzen dira. Esaterako, interesgarria da agerikotzea Espainiar estatuan eta EAEn zainketa lanetara dedikatzen diren emakumeen kolektiboak progresiboki osaera aldatu izana. Lehen, batez ere autoktonoak eta/edo beste autonomia erkidego batzuetatik immigratutakoak ziren. Azken hamarkadetan, berriz, zainketen krisien ondorioz, pobreziari lotutako lurraldeetatik etorritako emakumeek modu nabari batean areagotu dute haien



presentzia⁵. Nola edo hala, lanaren bereizketa sexuala nazioartekotu egiten da, zainketen kate globalak sortuz, praktikan esplotazio globalak direnak. Gurpil-zoro bat eratzen da: Zainketen banaketan injustiziak-desberdintasuna-pobrezia.

Familia = Armonia

Familia da ordena sozial honetako oinarrizko instituzioetako bat. Patriarkatuak feminitatearen eredu hegemoniko bat ezartzen du, emakumeen helmuga bakar gisa amatasuna duena oinarrian. Gure desira zein plazer sexualak ukatzearekin lotua dago, eredu heterosexual latz baten inposiziotik abiatuta, sexualitatea amatasunarekin identifikatuz. Guzti hori, bestelako aukera, desio eta familia ereduak zokoratzen, kolokan jartzen edo bazterrean uzten sistemaren iraupenerako subjektuen eskuragarritasuna bermatzearen esperoa. Askatasun indibiduala, ama izateko aukeraren aurrean, bigarren plano batean geratzen da; merkatuaren beharretara jaiotza eskaerei erantzunez beti, pentsioen sostengua galtzeko mehatxupean, planetak duen gaitasun fisikoaz kontziente izan gabe.

Aurrez esan bezala, zainketak ez dira lan gisa izendatzen, ez dira neurtzen, ez dira ordaintzen, ez dira politizatzen. Ez dira aitortzen, eta beraz, etxe barruetan gertatzen dena ez da gatazka bilakatzen.

Aurrerapena = Mugagabeko hazkundera

Baliabideek mugak dituzten mundu batean, hazkundera ezin da mugagabea izan. Planetaren muga fisikoak ukatzea, sinpleki, fantasia bat da. Garapen eredu honekin jarraitzea ez da bideragarria epe ertain/luze batera. "Aberats" izendatutako herrialdeek duela denbora asko gainditu zituzten haien lurral-

de propioetako mugak; ekonomia hazkundera, eta gaizki izendatutako gara-pena; baliabide naturalak kontsumitzetik eta hirugarren lurralde batzuetara kutsadura esportatuzetik sortu eta hazten dira. Ondorioz, garapen eredia, zeinetan lurralde batzuk besteen kontura hazten diren, ez da esportagarria; ez da sekula izan. WWFk argitaratutako aztarna ekologikoen informeak ohar-tarazten du egungo hazkunderaren erritmoan jarraituz gero, 2030 urterako bi planeta beharko liratekeela; baina planeta bat bakarrik dugu, eta nahiko kaltetua.

Merkatuaren ekonomiak "ekonomikotik" emakumeek etxeetan egiten du-ten lan guztia alboratzen duen modu berean naturarekin dagoen harreman oro ere baztertzen du. Denboraren ikuskera uniforme eta homogeneo bat ezartzen du, ez duena naturaren garai ekologikoaren kontzeptuarekin zeri-kusirik, edo pertsonen denbora biologikoarekin. Hala ukatu egiten da eko-dependentziaren printzipioa; baztertu egiten da ekosistemek baldintzatzen gaituztela, gure bizitzak garatzen ditugun tokia hain zuzen, beste espezie batzuekin batera.

Bizitzea = Obligazioa

"Inork ez du bere bizitzarekin amaitzeko eskubiderik", "teknikariak beti la-gundu zaitzake", "zure bizitza luzatzea da medikuntzaren zeregina". Tankera honetako esaldiak, barneratuta ditugu haurtzarotik gure tradizio judu-kris-taua dela-eta. Horrek ekarri ditu zure bizitzaz libreki gozatzea bezalako oi-narrizko eskubidearekiko aurreiritziak, erresistentziak eta mugak; gizarte demokratiko batean oinarrizko zutabe dena.

Horregatik, bizitza jasangarriez mintzo garenean, bizi eredu berri horiek nola bukatzeaz ere ari gara. Pertsona orok bere gorputzaz eta bizitzaz askatasu-

nez bizitzeko eskubidea sustatu nahi dugu; libreki eta legalki erabakitzea amaitzeko momentua, baliabideak eskainiz; muturreko eta bueltarik gabeko gaixotasunak dituzten pertsona erien eskubideak defendatuz, unea iristean bakean eta sufrimendurik gabe hiltzeko, baldin eta hori bada haien desira zehatza (DMD⁶).

Eta mitorik garrantzitsuena: Ez dago alternatibarik.

Egunero gure belarrietara iristen diren esaldiak sendoak dira, “ez dago alternatibarik”, “ez da posible beste eredu bat”. Zoritxarrez, mezu horiek existitu egiten dira, eta egoten jarraituko dute. Shock-aren doktrina, Naolim Kleinek



duela 10 urte aipatzen zuena, ezarritako boterearentzako estrategia oso eraginkorra da oraindik ere. Hein batean logikoa da gu geu zalantzan jartzea; baina egia da ere, "okerrenetik kalte gutxien egiten duena" premisa ez dela lar erakargarria.

Berebiziko garrantzia du, aimara⁷ komunitateak dioen bezala, bizitza ez dela isolatua buruan izateak. Ez dago leku bat ere ez urrun edo gertu; ez dago besterik, aimaren ikuspuntutik. Bizitza ez da gauza isolatu bat, indar naturalen konbergentzia harmonikoa baizik. Prozesu liberala desintegratzailea eta individualista da, eta bertan gure natura komunitarioaren ahanztura gailentzen da. Elkarbizitza osotasunean izan behar da; ez bakarrik modernitate propioaren erabilera eta abusu harremanean. Bizitze Onak ez ditu elikatzen jabetza harremanak, kontrara, harreman afektiboen prozesua sustatzen du.

Testuinguru honetan, oraina suntsitzailea da, eta etorkizuna bideraezina. Merkatuaren irizpideen menpe egoten jarraitzeko edo eskubideen fokutik ereduak eraikitzen saiatzen segitzeko aukeraren aurrean jarraitzen dugu; emakume eta gizonak, taldeek, erakundeek eta mugimendu sozialek gauzatutako erresistentzia prozesuak erreskatatuz, eskubide ekonomiko, soziala, kultural eta ekologikoen⁸ aitortza lortzeko borrokatu zutenak eta borrokatzen dutenak; orain arrisku bizian dauden berdinak. Ez dago bizitzarekin borroka horietan sakontzen duena baino alternatiba bateragarriagorik, atzeraezina den eredu sozio-ekonomikoaren aldaketara igarotzeko. Aktiboki mantentzen gaitezke dugunari eusten, edo zerbait hobea imajinatu eta eraikitzen saiatu. Mugarik Gaben uste dugu zilegi dela bigarrena gauzatzen laguntzea.

Alternatiba ez da bakarrik desiragarria, posiblea ere bada. Badira frogatzen duten adibideak, trantsizioa martxan dago.

3. Bizitza Jasan- garriak izateko ereduak sortu



Bizitza suntsitzen duen sistema baten aurrean pertsonak eta natura erdigunean jarriko duen sistema bat eraiki nahi dugu beste pertsona eta kolektibo batzuekin; Bizitzak Jasangarriak izateko ereduak sustatuz. Teorian proposamenak sinplea dirudi, baina praktika pixka bat konplexuagoa da. Azal dezagun zertaz ari garen.

Jasangarritasunaren kontzeptua ikuspegi ekologistatik dator, espezie batek inguruko baliabideekin duen orekari egiten dio erreferentzia. Hedaturaz, baliabide baten esplotazioari aplikatzen zaio, beronen berrikuntzaren mugaren azpitik. Gizateriaren oparotasunaren ikuspegitik, aldiz, Brundtlanden 1987ko informearen arabera, jasangarritasuna egungo belaunaldiaren beharrak asetzeari oinarritzen da, haien behar propioak asetzeko etorkizuneko belaunaldien gaitasuna sakrifikatu gabe.

Erabiltzen hasi zenetik, bere erabilera txarrak adjektibo ezberdinak baliatzera

eraman zuen, eta jasangarritasun ekologikoa edo ingurumenarena bezalako hitzez mintzatzera, adibidez. Hein batean erredundantea den zerbait da, baina bere hasierako zentzua errekueratzeko helburu duena.

24



Ondoren, ekonomia feminista hasiko zen bizitzaren jasangarritasunaz hitz egiten, azentua jendartearen erreproduzioan jarritz. Apustu politikotzat definitzen da, pertsonak eta planeta gure jardueraren erdigunean jartzen dituen garapen eredu gisa, gure eskubideen erabilera onartuz, baita hurrengo belaunaldia ere, zainketaren etikan oinarrituta.

Mugarik Gaben bi ikuspuntu hauen bat-egitearen alde egiten dugu apustu, giza bizitza eta bestelakoa bereizi gabe, kontziente izanda bizitzaren inguruko kontzepzio etiko-politiko ezberdinak daudela. Horregatik, ekonomia fe-



ministak eta ekofeminismo kritikoez egindako analisi eta proposamenetatik elikatuz, Bizitza Jasangarriak sustatzeko erronkari batu gaitzaizkio.

Bizitza erdigunean jartzeak sistemaren errotiko eraldaketa suposatzen du. Perspektiba hau erakunde sozial batean bilakatu beharko litzake, pertsonak eta planeta jardueraren erdigunean jarriko dituenak. Agerian jartzen ditu gizarte baten interesen lehenetsiak, lan prozesuak berreskuratzen ditu, bizitzaren zainketa ardurak hain gain hartzen dituenak aitortzen ditu, genero eta botere harremanak arreta jartzen ditu. Laburbilduz, populazioko sektore ezberdinen lan eta aisialdi denborak nola egituratzen diren aztertzen ditu.

Bizitzaren jasangarritasunaz hitz egiten hasteak poza merezi duen bizi mota zein den galdetzea suposatzen du, baita berau nola posible egin planteatzea ere.

Bizitza poza⁹ ematen duten bizitzak

Eguneko paradigman bizitzaren azken helburua ongizate indibiduala denaren kontzeptua nabarmentzen da, ez ongizate kolektiboa. Metaketa kapitalista ez da mugatzen diru mugimendu eta lanaren indarraren esplotazioa; horrez gain, denboraren, espazioaren eta bizitza onaren esanahia ere definitzen du.

Beharrezkoa da enpleguaren ideia haustea giza eskubideak eta kontsumo zein ongizaterako sarrera eskuratzeko bide bakar gisa. Ildo beretik, berriro kontzeptualizatu beharra dago, Bizitza Jasangarriaren proposamen batetik, beharren asebetetze sozialen dimentsio ugariako fenomeno moduan.

Bizitza on gisa zer ulertzen dugun galdetzeak ez du erantzun bakarra. Aintzat hartu behar da beronen nozioa toki eta momentu historiko bakoitzaren arabera aldatu egingo dela, baita norberaren posizionamendu etiko eta po-

litikoaren arabera ere. Zentzu horretan, lehentasunezkoa da modu kolektibo eta holistiko batean definitzea zer ulertzen dugun bizitzeak poza ematen duen bizi bezala. Hau, ezbairik gabe, erronka erraldoia da. Izan ere, esentzializatutako nozioa gainditzea eskatzen du, optika indibidualistatik begiratzeari uztea; eta besteak beste, inkontzienteki konparatu gabe hitz egitea bizitzaz, giza bizitzari.

Gauzak horrela, Amaia Perez Orozcoren (2014) gogoeta konpartitzen dugu honakoa dioenean: batetik, bere definizioak existentziaren oinarritzko bi baldintzari erantzun behar diola: kalteberatasunari eta eko/inter-dependenziari. Eta, bestetik, ukaezinak diren bi irizpide etiko behar direla esatean: unibertsaltasuna, denentzako proposamena eginez; eta singularitasuna, aniztasuna aitortuz. Modu honetan, bizitzaren nozio hegemonikoarekiko haustura ematen da, unibertsala bihurtzetik eta diferentzia errespetatzetik oso urrun dagoena. Paradigma nagusiarekin hautsi egiten da, giza eta naturaren bizitza banatzen duenarekin. Era berean, maskulinitasunarekin lotutako baloreak gizakiarenak modura identifikatzen dira, autoaskitasunaren amets zoroa inposatzen du, eta ongizatea merkatu kontsumoarekin lotzen du, etengabeko hazkuntzan eta aurrerapenean.

Herri indigenek ulerkeria modu horiei Bizitze Ona deitu diete, Ongi Bizitzea, Sumak Kawsay kitxuaz edo Suma Q'amaña aimaraz. Ongi bizitzea, aimarar komunitatearentzat, bizitzaren aurrean konpromisoa sortzea da, inguruan existitzen den edozeren aurrean.

Iparralde globalean, ez dugu inolako hitz partekaturik desazkundearen, elikadura burujabetzaren, ekonomia solidarioaren, kontsumo arduratsuaren eta ikuspegi feministaren planteamenduak txertatzerako orduan. Amaia Perez Orozco "ongi bizitzeaz" ari da etorkizuneko bizitzeak merezi duen bizi nozio etikoaz eta politikoki kodifikatuaz diharduenean, erradikalki

demokratikoa den eztabaida baten emaitza izan behar dela erantsiz. Zalantzarik gabe, aukera egokia da, zibilizazioen erreferentea gu izatearen logikarekin apurtzen duena; Via Campesinak proposatutako elikadura burujabetza kontzeptuarekin bat egitean egin genuen zerbeit da.

BIZITZA JASANGARRIAK

Gure hautua Bizitza Jasangarrietara igarotzeaz hitz egitea izango da.

Bizitza eredu desberdinak dira, merkatuen aurrean pertsonak eta planetak erdigunean jartzen dituztenak. Ahultasunaren aitortzan oinarritzen dira, eko/interdependenzian eta etikaren zainketan. Bizitzaren jasangarritasunera bideratuta daude, pertsona zein herriekin eta naturarekin harreman-tzeko modu berriak sustatuz.

Eraikitzen ari den kontzeptu politikoa eta eraldatzailea da, ekonomikoki, sozialki, kulturalki eta ingurumen alorrean antolatzeko era ezberdinak eta askotarikoak errespetatu eta barnebiltzen dituenak. Horrez gain, orainaldiko eta etorkizuneko belaunaldi guztien eskubide indibidual eta kolektiboak bermatzen ditu, planetaren mugak errespetatzearekin batera.



Horregatik egiten dugu apustu horren alde, bizitzaren jasangarritasuna jarri nahi dugulako fokupean, plurala ere erabiliz, eskaintzen dizkigun ereduen aniztasuna islatze aldera. Kontziente gara horrek izan ditzakeen mugez, batez ere "jasangarria" nola galdu den pentsatuz. Horregatik sinesten dugu gure zeregin pedagogikoa dela kontzeptuaren eduki politikoan tematzea.

Nola egiten ditugun posible

Bizitza jasangarriekin amesteak eztabaidatzera garamatza zeintzuk izango diren beharrezko estruktura ekonomikoak, sozialak, politikoak eta sinbolikoak. Bide horretan badira beharrezkoak iruditzen zaizkigun aurrekari batzuk:

• **Ekonomia birdefinitzea:**

Bizitzaren prozesu jasangarriak balioan jartzeak ekonomia berriro definitzea esan nahi du, sistema ekonomikoan genero harremanek duten garrantzia azalera ateratzea, eta desberdintasun egoeren eraldaketetikiko konpromiso erreala hartzea, ekonomia sozial eta solidarioaren baloreak berrezarrit.

Gakoa da ekonomiaren joera androzentrikoa agerian jartzea, eta "ekonomikoa dena" modu zabalago batean definitzea, produktibo/erreproduktiboaren dikotomiatik eratorria dela seinalatuz, merkatuen ardatz analitikoak eta baliabideen sorkuntzetara bideratutako prozesu zabalaren kompetentzia desplazatuz, testuinguru kooperatibo batean, bizitzeak mereziko duen bizitza bat edukitzeko.

Aditzera eman behar da moneta-ekonomia txanponik gabekoaren menpe dagoela, eta bizitzaren jasangarritasuna ez dela ekonomiarekin zerikusirik ez



duen erantzukizun pribatu femenino bat. Pertsonarik gabe, ez da existitzen ez lan merkatua, ez ongizate zein zerbitzuena. Hau da, harreman estrukturala dago merkantzien produkzio prozesuaren eta erreprodukzio sozialaren prozesuaren artean; baita denbora eta diruaren artean ere; edo ordainduzko lan eta soldata gabekoaren artean.

Eraldatzeak kontzeptuak, analisi kategoriak, datuak lortzeko metodoak... berritzea dakar. Lengoia da mundua nola ulertzen dugun adierazteko erabiltzen dugun modua, errealtatearen ikuspegia eta beronen interpretazioa. Ez da igorle neutro bat, botere harremanak aditzera ematen baititu. Haatik, kosmobisio mendebaldar eta androzentrikoa mantentzen duten kontzeptuen berrikuspen kritikoa egitea beharrezkoa da; eta, aldi berean, transmititzen duten baloreak berriro aztertzea.

Adibidez, lanaren kontzeptua birsortzea ezinbestekoa da, zeregin produktibo eta erreproduktiboak barne hartuko dituen, ekonomia tradizionalaren ikuspegi estua gaindituko duena, eta politika publikoetan pentsatzea onartuko duena, oinarrizko helburutzat giza bizitza eta pertsonen ongizatea edukiko duena; edo beste era batean esanda, giza bizitzaren jasangarritasuna bere dimentsio guztietan bermatuko duena.

Horrek balorazio lanen balorazio sozial eta ekonomikoarekin haustea suposatzen du, norik egiten duen eta zelako eragina duenaren arabera. Bizitzaren esfera ezberdinak kontziliatzeko beharra onartzea inplikatzeko du. Berriz baloratu eta banatzea eskutik doaz.

Lanaren kontzeptua birpentsatu beharko da enpleguaren aurrean. Zer da enplegu duin bat? Zein ez? Eduki liteke bizitza duin bat enplegu beharrik gabe? Bideragarria al da oinarrizko errenta unibertsal bat existitze hutsagatik?

Beste kontzeptu batzuk ere berrinterpretatu beharko ditugu, tradizioz logika kapitalista bati lotu zaizkionak: zer ulertzen dugun irabazi gisa, kompetentzia bezala, baliabide modura, produktibitate antzera, efizientzia eta abar. Birdefinitu nahi dugun edo beste alternatiba batzuk erabili nahi ditugun erabaki. Esaterako, zertaz hitz egiten dugu, onura komunez ala baliabide naturalerik? Zer produkzio mota nahi dugu, eta zertarako? Zer ulertzen dugu onurak sortzea bezala? Gure bizitzetako beharrak asetzea iristen den hori? Beste esfera batzuetarako denbora uzten duen hori?... Era berean, beste kontzeptu batzuk deseraiki beharko ditugu: familia, harremantzeko eredu normatiiboak, maitasun erromantikoa, amatasuna, eta abar.

• Zainketaz eta gauza gehiagoz hitz egitea:

Ez datza bakarrik zainketez hitz egitean, gorputz eta sentimenduei lotutako ekintza zehatz gisa ulertuta; gure buruei sistema sozioekonomikoaren multzoak zein neurriara arte bermatzen duen ongizate integrala galdetzean baizik. Ardura hau haiengan hartzen duten estruktura kolektiboak dauden edo ez. Edo, aldearantziz, intimitate zirkuituen gain uzten dira, kasu batzuetan pribatizatuak, eta beste batzuetan familiako beste norbaitek kudeatuak, batez ere emakumeek.

Honi dagokionez, garrantzitsua da aipamen berezia egitea zainketen definitzioari. Bizitzarako hain garrantzitsua den lan hau duela apenas berrogei urte hasi zen kontzeptualizatzen. Hasiera batean etxeko zeregin bezala, eta ondoren zainketa lan gisa, edo sinpleki, zaintza modura. Ahaztura honek erakusten duenez, zailtasuna ez dago bakarrik aipatutako lanen ekintza edo harremanen multzoan; baizik eta horrek azaleratzen duen balio sinbolikoan, definitzen duen ideologia patriarkalean, hain zuzen. Kontzeptu ezberdinek ez diote erreferentziarik egiten prozesua berari. Zainketen lana etxeetan egiten den lan bati erreferentzia egiteko erabiltzen da gehiago, etxebizitzako pertsona

edo familiari zuzenduta, eta moneta bidez ordaindu gabe. Aitzitik, zainketa kontzeptuak lanaren izendapena saihesten du, eta ondorioz, bere identifikazioa kalteberagoa da oraindik. Zainketen lana subjektibitatearen kargak ezaugarritzen du; emozioetan, sentimenduetan, estimuetan itzuliak. Ikuspegi subjektibo honen arriskua beronekin egindako erabilera da, zainketan eta amatasunean oinarrituta eraiki baita identitate femeninoa; egoera askotan, oso gogorra dela ukatuz, eta ez duela eskatzen zaizkion maitasun baldintzak zertan bete (Cristina Carrasco, Cristina Borderías eta Teresa Torns 2011).

Batzuetan, zainketen dimentsio etikoa azpimarratzeak enplegutik kanpoko munduaren idealizazioa dakar, baita berezkozat hartzeko arriskua ere. Beharrezkoa da zaintzearen -agindu sozialagatik emakumearen zerbait propioa balitz bezala- eta arreta jartzearen arteko bereizketa egitea -profesional edo zerbitzu publikoen zerbait balitz moduan-. Mari Luz Estebanek (2010) seinalatzen duen gisa, emozioen garrantzia birdimentsionatu behar dugu; eta estimuen, emozioen eta zainketen artean bereizketa egin, eremu ezberdin eta bereizgarri bezala. Horrek zainketa zereginaren trataera askoz sakonagoa egitea ahalbidetzen du: elikadura, garbiketa, mugikortasuna, pertsonaren intimitatea, enpatia, egoera eta behar ezberdinak diagnostikatzeko gaitasuna bermatzea; segurtasun fisikoa eta psikologikoa eskaintzea errespetuarekin batera; eta zaindu beharreko pertsonaren autonomia eta askatasuna sustatzea. Halaber, ezinbestekoa da egungo harremanen mugak eta familietako ideologiak gaindituko dituen elkarrekiko babesa, elkartasuna eta elkarrekikotasuna birdefinitzea.

• Bizitzaz bere modu guztietan hitz egitea:

Giza bizitza ez da bideragarria gizakiarenak ez diren bizimoduekin konpartitzen ez bada. Horregatik hitz egiten dugu bizitzaz bere modu guztietan. Horrek baldintzatzen du gure existentzia, horregatik izan beharko litzake na-

turaren eskubideen defentsa¹⁰, gutxienez, ekintza inteligente bat; gure bizi-raupena bermatzeko. Krisi klimatikoak eta ingurumenarenak -eredu energetikoaren erronka handienetakoak, hain zuzen- erregai fosilak abandonatzeaz gain, eredu energetikoa, elikadurarena eta ekonomikoa beste optika batetik eraldatzea eskatzen du, gailentzen diren logika antropozentrikoetatik urrunduta.

2008an Ekuador izan zen bere eraikuntzan natura eskubideen subjektu gisa aitortu zuen lehen lurraldea, era honetan bere mantenua bermatuz eta bere bizi zikloak, estrukturalak, funtzioak eta bilakaera prozesuak birsortuz. 2012an, Boliviak Ama Lurraren Legea onartu zuen, zeinak izaki bizidun guztien eskubi-deak aitortzen zituen, aukera berdintasuna emanaz gizakien aurrean naturari.

Hau onartzeak giza eskubide guztien ikuskera klasikoa moldatzea suposatzen du, interdependentzia eta ekodependentzia aitortuz. Bizitza jasangarriago bat izateak esan nahi du elkartasunaren kontzeptua zabaltzea, eta espezien arteko elkartasunean pentsatzea, naturarekin.

• **Bizitza jasangarrietara igarotzen:**

Bizitza Jasangarrien aldeko apustua egiteak maila ezberdinetako proposamen individual eta kolektiboak ditu bere baitan. Beste modu batean pentsatzeko lanaren antolaketa, bizitzaren beharrei erantzungo diona metaketa prozesuari beharrean, estrategia anitzak pentsatu behar ditugu. Erronka aspektu teoriko eta kontzeptualetan aurrera egiteko gai izatea izango da, baloreen aldaketan, pertsonen beharrei erantzuten diegun bitartean.

Epe motzean, funtsezkoa da jendearen bizitzetan onurak lortzea, bazterketa eta bizitzaren prekarizazioa frenatuz. Oinarrizkoa da diru-sarrerak ber-

matzea, eta zerbitzu publikoen aldeko apustua. Baina aldi berean, gai izan behar gara ikusteko elkarrekin epe luzean nora iritsi nahi dugun.

Uste dugu trantsizioan eredu alternatiboak gure gain hartzea egokituko zaigula, kontraesan jakinak ekarriko baditu ere. Jakin badakigu gaur egun soldataren esklaboak garela, errealitatea da enplegu baten beharra dugula bizitzeko eta autonomia izateko. Zentzu horretan ekonomia soziala eta solidarioa sustatzearen alde apustu egin dezakegu, ez baitio men egiten esklusiboki onuren eskuragarritasunaren logikari. Edo, zenbateraino garen soldataren esklabo pentsatzea. Hau da, zenbat diru behar dugun bizitzeko, zeintzuk diren gure beharrak, horietatik zeintzuk ase behar ditugun derrigorez merkatuan, kontsumitzeko beste moduren bat ote dagoen...

Halaber, aldarri urgente bat da denbora eta zereginen egungo banaketa aldatzea eta egungo araudiaren marko juridikoa moldatzea ez egoteko diskriminazio sozial eta ekonomikorik, argi izanda bidea ez dela bukatzen enplegu eta soldataren hobekuntza jakinekin. Historikoki, emantzipazioaren estrategia feminista izan da enpleguaren bidez aurrerapenak ekarri dituen apustua; baina ezin dugu ahaztu eredu eraldatu nahi dugula. Komeni da gogoratzea kontziliazio eta menpekotasun legeak behar eta aukeren arteko gatazkaren aringarri gisa pentsatuak izan direla.

Hemen jasotzen ditugun gogoetek ez dute ekiteko marko itxi bat sortzea helburu. Kontziente gara oraindik eztabaida asko irekita daudenaz. Esaten genuen bezala, erronka bizi jasangarriak zer diren demokratikoki definitzea izango da guretzako, eta horietara iristeko zein baldintza eman behar diren zehaztea. Bide horretan aurkitzen gara, etorkizunari ikuspuntu ezberdinetatik begiratzen, ikuspegi analitiko ezberdinetatik, hauetatik eta bestelako latitudeetatik, egoera honen erronka konplexua gure gain hartzeko, baina egiteko energia nahikoarekin.

4. Proposamenak

Mugarik Gaben, ONGD gisa gure jardue-
ra eremutik, aldaketa horretan lagun-
tzea dugu helburu. Horretarako bi ar-
datz nagusi lehenesten ditugu: institu-
zioen aurrean intzidentzia politikoa eta
alternatiben bidez herritarrak eraldake-
tarako subjektu aktibo gisa aitortzea.

4.1. Instituzio publikoekiko intziden- tzia politikoa.

Ulertzen dugun moduan, intzidentzia
politikoa egiteak politika publikoak
formulatzeko edo erabakiak hartzeko
boterea dutenen horiengan eragitea
suposatzen du, komunitateko pertso-
nei eragiten baitie, bereziki erabaki
politiko, sozial eta ekonomikoetatik
historikoki baztertuak izan diren per-
tsona eta kolektibo horiei. Horrenbes-
tez, herritarren aldetik demokrazia eta
eskubideen ariketa bat da. Nork, zer
eta nola erabakitzen duen lantzean
datza; eta hartutako erabakiak nola
inplementatu eta betearazten diren
zehaztean.

Aipatutako alderdietan eragiteko hel-
buruak honen bidez lor ditzakegu:



- Erabakitzen duten pertsonekin elkartruke hezigarriekin
- Politiken, legeen eta aurrekontuen gainean eragina izanez
- Erabakitzeko estruktura sortuz, parte hartzaileagoak eta gardenagoak izango direnak; eta kontuak ematea eskatuko dutenak.
- Hartutako erabakiak betetzen direla bermatzeko kontrol soziala

Bizitzaren jasangarritasunaren ikuspegitik, Euskal Herriko eta Latinoamerikako erakunde ezberdinekin batera eraikuntza prozesu kolektibo bat sustatu dugu, ekonomia, elikadura, energia eta zainketa arloetan funtsezkotzat ditugun aldarrikapen horiek definitzeko; etorkizunean intzidentzia politikora bideratutako prozesuak garatzeko helburuarekin. Aldarrikapen hauek ikuspegi lokal batetik pentsatuak izan dira; baina, ezbairik gabe, agenda globalarekin konektatuta daude.



ALDARRIKAPENAK

PERTSONEN ZAINKETA BIZITZAREN JASANGARRITASUNAREN ZUTABE GISA

36



Estrukturalak:

- Enpleguari dedikatutako denboraren murrizketa drastikoa sustatzea eta lanerako adina duen populazio guztiaren artean ordainduzko lanen banaketa egitea.
- Izaki ekodependienteak edo interdependienteak izatearen ezaugarriari ikusgarritasuna ematea ahalbidetzea eta/edo sustatzea.
- Bizitza jasangarria izateko beharrak modu kolektibo, demokratiko eta komunitario batean autogestionatu daitezkeen espazio publikoak erraztea; besteak beste, pertsonen zainketa, jantoki komunitarioak, herri-ortuak, garbitegiak, objektu eta ezagutzen trukeak, aisialdirako eta belaunaldien arteko topaketak sustatzeko guneak, eta abar.



Pertsonekiko arreta:

- Zainketa sistemarako sarbidea instituzio publikoek bermatu beharreko eskubide unibertsal gisa sustatzea (sektorearen profesionalizazioaren, laguntzen eta beharrezkoak diren neurri guzti horien bidez).
- Osasun publikoa bermatzea, doako sarbide unibertsalarekin.

Hezkuntza:

- Hezkuntza publikoa eta kalitatezkoa bermatuko da, doako sarbide unibertsalarekin, zero urtetik aurrera ordutegi zabalarekin.
- Eskola curriculumak zehar-lerro gisa bizitzaren jasangarritasunaren ikuspegi izatea ahalbidetu eta sustatuko da: zeintzuk diren oinarrizko bizi beharrak eta zein zereginak asetzen dituzten, eta baita nola egin ere.

Lan eremua:

- Besterenezinak diren amatasun eta aitatasun baimenak parekatuko dira, % 100ean ordainduta.
- Etxebizitzetako langileen eskubideak parekatuko dira Langileen Estatu-tuetan.
- Jendarteko soldata arrakala murrizteko neurriak aplikatuko dira, 1etik 3ra mailakatzea lortu arte.



ELIKADURA BURUJABETZA

Lurra eta Onura Komunen sarbideari dagokionez:

Lurra

- Lurraren eta uraren zentralitatea sustatzea bizi onura gisa lurraldeko araudia planen baitan, eta nekazaritza eta arrantzaren aldeko apustua egitea kalitatezko elikagaiak sortzeko, transgenikoetatik at.
- Bizitzeko behar dugun lurraldea pentsatzeko mekanismo parte hartzaileak txertatu eta gauzatzea: populazioak luraren zein erabilera behar duen, mantendu beharreko ondasun naturalen eta herritarren erabilera sozialen artean oreka bilatzeko.

Ura

- Uraren Defentsaren ideia onura komun gisa txertatzea
- Uraren eskaeran eskaintzan baino presio gehiago izango duten araudiak sortzea.

- Uraren kultura berriaren inguruko laguntza eta aholkularitza programak garatzea elikagaien ekoizpen instalazio guztietarako, uraren erabilera konprometituagoa eta jasangarriagoa bultzatzeko. (...)

Zainketak eta ezagupenak

- Biodibertsitatearen berme modura nekazarien jakintza eta jasangarritasuna birkokatzen laguntzea, eraldaketarako subjektu gisa. Sistema kapitalistaren joera ezagutza pribatizatzea izan da, eta herri-jakintza zein zainketen sistema ikusezin bihurtzea. (...)
- Tokiko ekonomian zainketa hauek duten garrantzia ikusgarria izateko guneak, baliabideak eta eztabaidak ezartzea; eta formula alternatibo, kolektibo eta demokratikoak sortzea zainketa maila lokaletik sozialki antolatze-ko.

Elikagaien produkzio eta transformazio alorrari dagokionez:

- Produkzio lokal autonomoak sustatzea. Tokiko ekimen txikiek laborantza instalazioen iraunkortasunari mesede egin diezaiokete, kanpoko inputak murrizten lagunduz. (...)

DESAZKUNDE ENERGETIKOA

Aldarri urgenceak:

- Araudia egokiaren bidez pertsona politikoek energia enpresetan karguak izatea saihestea



- Frackingaren inguruko luzamendu bat ezartzea, baita orain arte onartutako prospekzioak erretiratzea ere.

Epe ertain/luze baterako aldarriak:

- Enpresa transnationalei aitortza eta indemnizazioa ordaindu beharra exijitzea; gas, petrolio eta uranioaren esplotazio arduragabeak herrialde eta komunitate askori eragindako kalteengatik.
- Efizientzia eta aurrezte energetikoa sustatzea sektore guztietan.
- Energia oinarrizko eskubide gisa aitortu behar da, eta legeak inplementatu behar dira kantitate minimo bat eskuratu ahal izateko, pertsona guztiei bizitza duin bat bermatzeko.
- Ekosistema jasangarri bat bilatuz garapen urbanoa sortzea espazioekin batera (ekoiztutako energia energia berriztagarrien bidez eskatutako energiaren berdina izan dadila); efizientzia irizpideak izanda birgaitzea;

pertsonak haien kontsumoa kontrolatzeko kontagailu berriak erabiltzen irakastea.

- Kontu-ikuskaritza energetikoak egitea gastu energetikoa murrizteko, efizientzia adierazle minimoak ezarritz. Adierazle hau ez balitz beteko gehiegizko kontsumo eta kutsaduragatik zerga bat ezartzea.
- Espazio publiko eta pribatuen erabilera sustatzea ahalik eta ordu kopuru gehienetan, beste erabilera batzuei helduz (...).
- Bizikletaz edo oinez ibiltzea bezalako erabilera ez kutsagarriak lehenestea: oinezkoentzako bide atseginak sortzea, berezko bideen bitartez txirriindulariekiko eta oinezkoekiko errespetua sustatzea, abiadura muga 30km/orduko mugatzea... Baita bizikleta-bideen kilometroak handitzea ere, ahalik eta helmuga gehienetarako sarbidea bermatuz, horretarako beharrezkoa den logistikarekin (aparkalekuak, estalkiak, eta abar).
- Esportazioak murrizteko moduak bilatzea, batez ere merkatuan existitzen diren produktuekin, jasangarritasuna eta tokiko komertzioa bilatuz, hozkailu-garraioa murriztuz, tren bidezko leku-aldatzea indartuz kamioi indibidualen orde.

EKONOMIAREN BIRKOKAPENA

Aldarrikapenak maila politiko eta estrategikoan:

- Ekonomia berri baten gogoeta bitarteko bihurtzea pertsonen zerbitzurako, onura komunerako eta ingurumenaren jasangarritasunerako.

- Interes gabeko ekonomiaren aldeko apustua, irabazi asmoetan eskusiboki oinarrituko ez dena. Komertzio libreen hitzarmenak bezalako erremintak ez babestea, giza eskubideen murrizketen kontura kapital transnazionalari mesede egitean zentratzen baitira, besteak beste, giza eskubideak, ingurumen babesa eta herrien burujabetza murriztuz.
- Instituzioek bizitza duin baterako eskubidea bermatu behar dute. Hori lortzeko lanabes funtsezko bat oinarritzko errenta unibertsalaren ezarpena da, baldintza gabea, edo oinarritzko errenta berdina.
- Lan guztien banaketa politika plan bat egitea, ordainduzko lanari eskainitako denbora murriztuz.
- Sozialki arduratsuak diren erosketa publikoen neurriak garatzea, irizpide lokalak, sozialak, etikoak zein ingurumenaren aldekoak lehenetsiz instituzioen aldetik zerbitzu eta produktuen kontratazio eta erosketetan.
- Ikuspegi feminista eta bizitzaren jasangarritasunaren paradigma zeharkakotzea kudeaketa instituzionalaren alorrean.
- Fiskalitatea da aberastasunaren banaketaren erreminta garrantzitsuenetako bat. Gure helburua norabide horretan bultzatzea izan behar da, errotiko aldaketa bilatuz egungo errenta eta ondare banaketaren ereduari aurre egin ahalko dion sistema fiskal baten alde, geroz eta desberdintasun gehiago sortzen ditu-eta.
- Parte hartze soziala bultzatzea politika ekonomiko eta sozialen diseinuetan, gizartearen iritzia aintzat hartuz benetako kontsulta eta erreferendum lotesleen bidez gai garrantzitsuak direnean (zergen erreforma, Abiadura



Handiko Trena, Oinarrizko Errenta Unibertsala eta baldintza gabea, lanaren banaketa, 21 orduak...).

- Prozesu kolektibo eta demokratiko baten beharra azaleratzea sektore kutsagarri eta antisozial handien konbertsioa eta kokapenari berriro heltzeko; enplegu berdeak eskaintzen dituen aukeretan oinarriz (bankua, energia, arropa, elikadura, automozioa, industria militarra...).
- Sentsibilizazio eta kontzientziazio herritarra lortzeko agente sozial bartzuekin kanpainak garatzea ekonomia sozial eta solidarioaren inguruan, haien alternatibak zabaldu eta ekonomiaren paradigma aldatzeko beharren inguruan sentikortzeko.
- Ekonomia solidarioarekin lotutako lurraldeko proiektu eta ekimenen mapaketa.



*Ama batek sei urteko semea eraman zuen Mahatma Gandhiren
etxera, hau erregutuz:*

*– “Erregutzen dizut, Mahatma. Esaiozu nire semeari ez dezala
azukre gehiago jan, diabetikoa da eta bere bizitza arriskuan jart-
zen du hori egitean.*

Niri jada ez dit kasurik egiten eta beragatik sufritzen nabil.

Badakit zuri kasu egingo dizula, miresten zaitu eta.”

Gandhi pentsatzen geratu zen, eta hau esan zion:

*– “Sentitzen dut, andrea. Orain ezin dut hori egin. Ekarri semea
hamabost egun barru.”*

*Emakumeak, harrituta, eskerrak eman zizkion, eta eskatutakoa
beteko zuela zin egin zion.*

Hamabost egun eta gero, semearekin itzuli zen.

*Gandhik, begietara begiratu zion mutikoari, eta, autoritatearekin
esan zion:*

– “Mutiko, utzi azukrea jateari. Zure buruari min egiten diozu.”

Eskertuta, baina harrituta, amak galdetu zion:

– “Zergatik eskastu zenidan bi asteren ostean etortzeko?

Bera esan zeniezaiokeen lehen egunean.”

Gandhik erantzun zion:

“Duela hamabost egun, nik azukrea jaten nuen”

«Munduan ikusi nahi duzun aldaketa izan behar zara».

Mahatma Gandhi

4.2. Bizi eredu jasangarriak indartu eta sustatzea.

Egungo testuinguruan, beharrezkoa da sistema kapitalista eta heteropatriarkala salatzeko gure apustuarekin jarraitzea. Baita bizi eredu alternatiboak, feministak eta ingurumen aldetik jasangarriak izango direnak indartzea ere, justizia soziala eta naturaren eskubideak sustatuko dituztenak, bai indibidualak eta baita kolektiboak ere, pertsona eta herri guztienak.

Helburu global honen aurrean ezinbestekoa zaigu prozesu hezitzaileak abiatzea, irauli nahi ditugun egoera horietan eragiten duten kausa eta ondorioetan sakonduko dutenak; eta aldi berean, kontzientzia kritikoa eta solidarioa bultzatuko dutenak.

Beste eredu batzuetara igarotzeak herritarrak eraldaketarako subjektu aktibo gisa aitortzea eskatzen du. Garrantzia berdina dute nola parte hartzeak, antolatzeak eta mobilizatzeak; hala gure eguneroko bizitza iraultzailea dela ulertzeak.

MAILA INDIBIDUAL ETA KOLEKTIBOAN ALDATZEKO ALTERNATIBAK

“Euskal Herritik kolektibotasunean eraikiz” (2016) prozesuaren laburpena.

PERTSONEN ZAINKETA BIZITZAREN JASANGARRITASUNAREN ZUTABE GISA

- Bizitzaren jasangarritasunerako beharrezkoak diren lan guztien banaketa modu parekide batean egitea.
- Gizonezkoek zainketa lanetan duten erantzukizuna haien gain hartzeko, berdintasun ikuspegia lantzea.

- Etxeko eta zainketa lanen antolaketa soziala herrialde txiroetako pertsonen esplotazioan oinarritua ez dagoela bermatzea. (...)

ELIKADURA BURUJABETZA:

- Gure eguneroko kontsumoa ere ekintza politikoa da (...). Haatik, izan modu pertsonal, familiar eta/edo kolektiboan komertzializazio sare ezberdinetan parte hartzea (...). Adibidez, kontsumo taldeetan, ekoizle eta kontsumitzaileen arteko kooperatiba mistoetan, ekonomatuetan, eredu honekin produkzio txikiak babesten dituzten banatzaile alternatiboetan, edo eredu agroekologiko zein autokontsumorako konbertsioan. (...)

DESAZKUNDE ENERGETIKOA:

- Gure komunitatea edo etxebizitza inguratzen duen efizientzia behatzea, fatxada isolatuak edukitzen eta leihoak bikoitzak izaten saiatzea. Termotatoa modu jarraitu batean epeltzeko tenperaturan jartzea, arropa jartzeko moduan baina erosotasunari muzin egin gabe (...).
- Bizikletaz edo oinez ibiltzea. Autoaren edo bestelako ibilgailuen erabilera murriztea, eta erabiltzekotan, modu efiziente batean egitea, ibilgailuak elkarbanatuz, eta abar. (...)

EKONOMIAREN BIRKOKAPENA:

- Gure kontsumoaren 3 Bak: berrerabiltzea, birziklatzea eta murriztea.
- Finantza etikoen, merkatu sozialaren, komertzializazio ibilbide motzen, kooperatibo energetikoen eta abarren aldeko apustua egitea. Alternatibak

eraikitzeak, zabaltzeak eta biderkatzeak sistema post-kapitalista solidarioago, parekideago eta jasangarriago baten trantsiziorako bidean jartzen gaitu. (...)

Mugarik Gaben, zentzu horretan, gure praktika eta antolaketa prozesuetan koherentzia mantentzearen aldeko apustua ere egin behar dugula ulertzen dugu; kontsumo arduratsua egiteari dagokionean, praktika heteropatriarkalaren erreproduzioak berrikustean, eta harreman parekideagoak sustatuko dituen modu berriak bilatzean. Bide horretan, batetik, politika ekologiko baten lanketa eta inplementazioa nabarmendu dezakegu; eta, bestetik, une honetan, antolatutako kulturari eta talde lan ez patriarkatuari begirako orientatutako prozesu parekide pro baten garapena.

Aldi berean, uste dugu ez dagoela egungo konplexutasunak eskatzen dituen erantzunak emateko kolektibo edo mugimendu sozial bakarra ere, edo modu indibidual batean aldaketa sozialak egin ditzakeena. Sinetsita gaude sareak, talde lana eta diskurtsoen artikulazioak zein borroka eta mugimenduak sortzea ezinbestekoa dela kolektiboki eraldaketa sozial baterantz aurrera egiteko. Horregatik sustatzen ditugu “Desazkunde eta Bizitze Ona” bezalako sareak, “Saretuz” eta “Zentzuz Kontsumitu” modukoak eta kooperazio feminista global baten aldeko aliantzak. Era berean, TTIPari EZ, Emakumeen Mundu Martxa, Martxoak 8 eta Azaroak 25eko Koordinakundea eta Pobrezia Zero bezalako plataformetan hartzen dugu parte. Eta, Jardunaldi Ekosozialistak bezalako gogoeta espazioak antolatzeaz arduratzen gara.

Ildo beretik, giza eskubideen ikuspegitik lan egiten duen erakunde internazionalista gisa, jendarte batzuek beste batzuegan duten ardura aitortzen dugularik, Latinoamerikako mugimendu sozial eta erakunde eraldatzaileak babesten ditugu, modu berean nola salatzeke hala gailentzen den ereduari

alternatibak bilatzeko prozesuak sustatzen dituztenak. Jarraian tokikotasu-
netik bizitza jasangarriak sustatzeko prozesuetako batzuk bildu ditugu, arazo
globalei aurre egiten laguntzen dute-eta.






Nikaragua

Xochilt Acatl

Xochilt Acatl Emakumeen Zentroa Nikaraguako Emakumeen Mugimenduaren baitako erakunde gisa definitzen da. Gaur arte, programa ezberdinen bidez, emakumeen ahalduntzea sustatzen ibili da bizitzako eremu ezberdinetan, alor pertsonaletik, familiarretik, sozial komunitariotik eta ekonomikotik. Halaber, gizon eta emakumeen arteko harremanak hobetzeko lan egiteaz gain, herriko garapenean lagundu dute, populazioaren parte hartze aktiboari mesede egingo dion kultura politikoa sustatuz. Autojasangarria izango den landa garapen eredu berri batean eragiten saiatzen da, komunitateetako agente guztien artikulazioan, kudeaketa komunitario eta municipalak hobetzeko, azken helburu gisa departamenduko eta Udalerriko giza garapen integralean ekarpena egitea izanik.

Axayacatl

Axayacatl emakume elkarteak irabazi asmorik gabeko erakundea da, haien eskubideen defentsaren aldeko borro-

50 

karako sortua. Beste emakume batzuen eskubideak ere sustatzen ditu, haien autonomia lortzeko beharrezko erremintak eskainiz. Haien misioa sistema patriarkalak ezarritako desberdintasunean oinarritutako botere harremanen eraldaketan laguntzea da, emakumeak genero indarkeria mota oro bizitzera bideratzen baititu (fisikoa, psikologikoa, sexuala, ekonomikoa, laborala, on-darezkoa eta instituzionala), emakumeen autonomian ekarpena eginez, eta espazio publikoetan genero politikak txertatzea lortzeko eraginez. Jardute eremua Departamendukoa da, Masayako Departamenduan kokatutako lur-sailak, hain zuzen.

El Salvador

Las Dignas (<http://www.lasdignas.org.sv/>)

Ordena patriarkala, kapitalista eta heterosexista eraztea bilatzen duen erakunde feminista da; eraldaketa sozial, politiko, kultural, ekonomikoa zein ingurumenekoaren bidez emakumeekiko menderakuntza eta zapalkuntza ezabatzea nahi duena, eskubide sexualak eta ugalketakoak errespetatzea eta gozatzea bermatzeko. Hiriko eta landa eremuetako emakumeen autonomia eta ahalduak sustatzen dute, klase eta identitate ezberdinetakoena. Haustura indibidual eta kolektiboak egitera animatzen dute; lan eremuko bereizketa sexuala, emakumeen kontrako indarkeria eta sozializazio prozesu sexistak desafiatur; plazer eskubideagatik, zoriontasunagatik eta diskriminazio ezagatik borroka dezaten.

Tokiko garapenerako "Colectiva Feminista" (<http://colectivafeminista.org.sv>)

Bere lana emakumeek politikoki eragitera bideratzen dituen emakumeen erakundea da, emakume eta gizonen arteko harremanak modu parekidean eraikitzen dituen gure lurralde errealtate lokal eta nazionaletatik eraginez; gizarte bidezkoago, demokratikoago eta parekideago bat lortze aldera. Lan

ildoen artean dituzte, besteak beste: Eskubide sexualak eta ugalketakoak, Emakumeentzako indarkeriarik gabeko bizitzaren sustapena eta herritarren segurtasuna, Emakumeen ahalduntze eta autonomia ekonomikoa; Giza eskubideen, feminismoaren eta ingurumenaren emakume defendatzaileen-
tzako babes integrala; berdintasunerako politika eta herritarren parte har-
tzea, Udalgintza eta gobernagarritasun demokratiko lokala.

Kuba

ACPA

Animali Produkzioko Elkarte Kubatarrak herrialdeko probintzia guztietako ekoizleak batzen ditu. Kubako erakunde erreferenteetako bat kontsidera liteke. Bere ekintzen bidez elikadura burujabetzan aurrera egitea bilatzen dute, animalia produkzioaren garapena indartuz, batik bat teknologia jasan-
garrien bidez. Produkzioak areagotzeko eta nekazaritzako elikagaien eredu kubatarrari ekarpena egiteko helburuarekin, nekazaritza eta abeltzaintzako produkzio unitate ezberdinei laguntza teknikoa eskaintzen diete, trebakun-
tza indartuz, produkzioak dibertsifikatuz, animalien elikadura oinarria ho-
betuz, azpiegiturak berregokituz, eta emakumeen sarbidea potentziazatuz bai enpleguan eta baita erabakitze organoetan ere.

Guatemala

Emakumeen Sektoreko Aliantza Politikoa (www.sectordemujeres.org.gt)

Guatemalako eskualde guztietako 33 erakundeez osatua dago. Emakumeen problematikak ikustera emateko egiten dute lan, proposamenak eraikitzeko eta pertsona guztien ongizatearen eta naturaren mugimendu politikoaren parte izateko. Formazio politikorako eskolak sustatzen dituzte, erakundee-
tako emakumeen ezagutza eta produktu elaboratuen trukeak; emakumeen

bizitzak hobetzeko sortutako mekanismoetan eragiten dute; eskaerak ikus-tarazteko mobilizatzen dira; erabakiak hartzen diren espazioetan parte har-tzen dute eremu komunitarioan eta herri, herrialde zein nazio mailan; me-moria historikoa pilatzen dute, iraganeko emakumeek egindako ahalegin, borroka, erresistentzia eta bizitzak aitortuz. Eta guzti hori Bizitze Ona dei-tzen diotena lortzeko, Utz' Kaslemal ki'ke ixoq'i, emakumeen eskutik sortu-tako proiektu emantzipatzaileak.

UKUXBE (<http://ukuxbe.org/Index.html>)

UKUXBE erakunde Maiak urteak daramatza deskolonizaziorako hezkuntza prozesu ez patriarkal batean murgilduta maila lokal eta nazionalean, liderren eta komunitateen boterea zein erakundea indartzeko. Formazio prozesuak diplomatuen eta analisi estrategikoen zirkuluen bidez egiteak aukera ematen du bizi eta garapenerako eredu propioen kontra ari diren megaproiektu baliagarrien eta megalaborantza globalizatuen ikuspegi orokorra ulertzeko. Formazioa intzidentziatzeko ekintza politikoekin osatzen dute, meategietako interbentzioek sortutako lurralde eskubideen bortxaketaz informatuz eta salatuz. Gainera, UKUXBEk lehen hezkuntzako eskola bat kudeatzen du kolonizatzailea ez den hezkuntza batean, balore maiekin. Eskola honen baitan txertatu da elikadura burujabetzaren gaia, heziketa praktikatik, enfasi kulturala duten ortu organikoekin bitartez.

ASECSA (<http://asecsaguatemala.org/>)

ASECSAk 2008an hasi zuen Formazio Politikorako Eskolatik abiatuta, komu-nitateetako gidarien markoak indartu ditu erauzketara bideratutako ekono-miaren aurrean sortu diren erresistentzia prozesuetan. Elkar eraginez bere borroka prozesuekin konprometitu da, tokiko aliantzekin zein herrialde mai-lakoekin. Alva Verapazen, esaterako, laborantza gatazka arindu da, haienak diren lurrak kentzearen biktima baitira; iturri hidrikoaren sarbidea ukatzea-



renak edo lapurretarenak, eta are larriagoa dena, ur iturri horien kutsadurarenak, monolaboratza hedapen handien presentzia dela-eta. Gainera, ASECSAk elikadura burujabetzaren hiru eskola politiko ditu, eta nekazariak babestu egiten ditu produkzio agroekologikorako prozesuak ezartzeko, familiei elikagai osasuntsuak eta ingurumenarentzako ez kaltegarriak direnak bermatuz. Halaber, intzidentzia politikoa egiten da autoritate komunitario eta municipalen aurrean frogagarriak diren partzela ereduaren bidez, Alta Verapazaren elikadura burujabetzarako egiaztatutako alternatiba bezala.


Kolonia

CRIC (<http://www.cric-colombia.org/portal/>)

Kaukako Kontseilu Erregionala hastapenetatik konprometitu da lurraren askapenera, berreskuratutako lurretan lan komunitarioa sustatzera, komunitate indigenen erabilera eta ohiturekin bat etorritz. Herri indigenetako ekonomia tradizionala ikuspegi integral batetik goratzen dute, zeinaren arabera ekonomikoa kulturarekin, politikarekin eta sozialarekin lotua dauden herri gisa dituzten bizi planak. Hortik abiatuta sortu eta sendotu dira erakunde ekonomiko propioak, adibidez: enpresa komunitarioak, talde asoziatiboak, denda komunitarioak, nekazaritza eta abeltzaintza eskolak, proiektu komunitarioak eta Familia nukleoak. Orobat, Ama Lurraren defentsarekiko konpromisoa mantentzen dute baieztatzean ezin dela garapen ekonomikorik egon naturarekin produkzio oreka bilatu gabe. Iparraldean, duela urte batzuetatik hona aurreratu dute "Ama Lurraren Askapen prozesua" agroindustriari eta multinazionaleri aurre egiteko.

OIA (<http://www.oia.org.co/>)

Antioquia Erakunde Indigenak, Formazio Politikoko Eskolaren markoan, Antioquiako herri indigenen prozesu eta formazio beharren inguruan hausnar-

54 

tzen du. Hortik eratu zuten LPMT proposamena, hots, Ama Lurraren Pedagogian Lizentziatura, irakasleei zuzendutako trebakuntza prozesu gisa ulertuta, pedagogia eta bihotz ona duten herrietako liderrena. LPMTk erdigunean jarritzen du pedagogo garrantzitsu gisa Ama Lurra, beronen parte garela ulertu arazi eta berorekiko maitasuna landatzeko. "Lurra zaintzea, gure burua zaintzea da, gure gorputza, gure izpiritua; eta era berean denok gure artean elkar zaintzea. Begirada kokatu beharra dugu zaindu eta kontserbatzeko; pentsamendu kolonizatzailea, merkatukoa eta kontsumista pentsamendu kontziente iraunkor eta parekide bategatik aldatzeko; Ama Lurra irakasten duen modura". OIAK "Defensa de los sitios sagrados, patrimonio emberá para el mundo" kanpaina sustatu du Antioquiako herri indigenen bizitza eta kultura arriskuan jartzen duten multinazionalen estrategiaren eta beraz, munduaren aurrean; herri indigenak baitira naturaren zaindariak.

MQC (<http://www.mujeresquecrean.org/>)

"Mujeres Que Crean" (MQC) erakundeak feminismitik gauzatzen du trebakuntza, eta jarreraren, iritzien eta usteen garapena sustatzen du, gizartearen ongizatean lagunduz. Aldaketak proposatzen ditu kontsumoari dagokionez, kapitala eta lanaren arteko harremana berriro definitzeko beharra planteatzen du; eta, zainketaren ekonomiaren inguruko ikuspegi garrantzitsu bat, indarrean dagoen ereduko egituretan ikusezina dena. MQCrentzat genero eta ingurumen ikuspegi batekin ardurak hartu eta konprometitzeak natura, planeta eta gorputza kaltetu eta suntsitzen duten jarrerak, portaerak eta praktikak aitortzea eta ulertzea suposatzen du; eta modu berean gorputzarenak, biolentzia sexualen kasuan, emakumeen gorputza gailentzen delarik. Kontsumo Arduratsu, Kritiko eta Eraldatzailearen Sarearen parte dira, 2014tik SETEMek sustatua, Euskal Herriko erakundearen parte hartzearekin, baita Hegoaldeko hirurena eta Ertamerikakoa ere.

Bolivia

CEFREC (<http://www.apcbolivia.org/org/cefrec.aspx>)

Herri indigenen eta emakumeen eskubide indibidual eta kolektiboen formakuntza prozesuak babesten ditugu, baita komunikazioari buruzko trebakuntza teknikoak ere. Formatutako komunikatzaileek irratia, telebista, internet eta bestelako medioen bidez komunitateetan barrena hedatzen diren komunikazioak egiten dituzte (prentsa, irratia, ikus-entzunezkoak...). Komunikazio indigena propioa erabiltzen da, besteak beste, helburu hauetarako: (i) Bizitze Ona paradigma bezala sustatzen duten tradiziozko balore, jakintza eta praktikak errekuiperatzeko, zabaltzeko eta balioan jartzeko, naturarekin armonian bizitza erraz, oso eta duin bat lortzeko. (ii) Herri indigenen eskubideen eta legeen inguruko informazioa zabaltzeko; Boliviako Estatu Plurinezionala eraikitzen bideratutako gogoeta eta eztabaidak sortzeko, Natura eskubideen subjektu gisa aitortzen duen eraketa politikodun estatua. (iii) Ekonomia komunitarioa Ekonomia Pluralaren moduetako bat bezala ezagutzera ematea, estatuaren eraketa politikoan aitortua. (iv) Elikadura burujabetzaren inguruko printzipioen inguruan zabalpena eta gogoeta egitea, baita produkzio agroekologikoarena ere, edo planetaren ingurumen jasangarritasunean laguntzen duten bestelako praktikenak.



5. Glosarioa



Agroekologia:

Elikagai osasuntsuak ekoiztearen ikuspegitik harago, bestelako dimentsio batzuk ere hartzen ditu bere baitan, kultura, ekonomia, gizartea eta politika, kasu. Elikadura ez du bakarrik ulertzen modu osasuntsu batean elikatzeko modu gisa, horrez gain dimentsio soziala ere badu. Agroekologiaren printzipioak: Ingarumenaren kontserbazioa, laborantza organikoetatik eratorritako tokiko hazien erabilera, plaga eta gaixotasunen autoerregulazioa edo biopestiziden erabilera, landare eta animalien kontrol biologikoa eta erresistentzia naturala, laborantza propioaren baitako energia ziklo itxiak areagotzea; ongarrien, medatzeen eta ongari organikoaren erabilera; eta garaiko laborantza osasuntsu zein nutritiboa ekoiztea.

Androzentrismoa:

Ikuspegi teorikotik eta ezagupenetik gizonezkoak erdigunean eta gauza guztien neurritzat dituen mundua eta gauzak ikusteko modua, gainontzeko guztia ezkutatu eta ikusezin bilakatuz, horien artean emakumeek gizarteari egiten dizkieten ekarpenak eta kontribuzioak.

Biodibertsitatea:

(Ingelerazko Biodiversity hitzaren neologismoa; grekotik βιο-, bizitza hartu duena; eta latinetik diversitas, -ātis, aniztasuna). Dibertsitate biologikoa deitu zaio ere, eta Dibertsitate Biologikoaren inguruko Nazioarteko Hitzarmenaren arabera, Lurrean eta berau osatzen duten patroi naturaletan bizi diren izaki bizidunen aniztasun zabalari erreferentzia egiten dion kontzeptua da; prozesu naturalen milaka milioi urtetako eboluzioaren emaitza, eta hazten ari den gizakien jardueraren eraginaren ondorioa. Biodibertsitateak ekosistemaren aniztasuna eta espezie bakoitzaren ezberdintasun genetikoa berdindu ulertzen ditu, eta horrek bizitzaren konbinazio modu asko egotea ahalbidetzen du; elkarrekiko interakzioek eta inguruan dauden gainontzekoenak planetaren gaineko bizitzaren sostengua oin hartzen dutelarik.

Bizitze Ona:

Aimarar komunitatearentzat, Fernando Huanoaniren arabera, abokatu eta intelektual aimara, Bizitze Ona (edo ondo bizitzea) da "inguruan dagoen



guztiarekin armonia eta orekan bizitzen eta elkarbizitzen jakitea; gizakiaz harago, mendiarekin, ibaiarekin, inurriekin, Pachamanarekin eta kosmos aitarekin bizikide izatea”.

58 **Aldaketa klimatikoa:**

Aldaketa Klimatikoaren inguruan Nazio Batuen Hitzarmen Markoak giza kauesek eragindako aldaketei erreferentzia egiteko bakarrik erabiltzen du aldaketa klimatikoaren kontzeptua: “Aldaketa klimatikotzat” ulertzen da munduko atmosferaren osaera aldatzen duen giza jardueri lotutako aldaketa oro, izan zuzenean edo zeharka; horri klimaren aldagarritasun naturala erantsi behar zaio, konparagarriak diren aldietan behatu denez.

Kontsumismoa:

Kontsumismoa nola beharrezkoak ez diren onura eta zerbitzuen erosketak edo kontsumoari erreferentzia egiteko hala aberastasuna lortzeko lehia-kortasuna sustatzen duen sistema politiko eta ekonomikoari keinu egiteko erabil liteke, talde sozial baten barneko status edo prestigio ikur gisa. Neurri handiko gizarte garaikidearen kontsumoak baliabide naturalak eta oreka ekologikoa serioski jartzen ditu arriskuan. Kontsumismoak, eskuragarritasun edo erosketak eskerga gisa ulertuta, efektu eta ondorioak idealizatzen ditu kontsumo praktika asebetetze pertsonalarekin lotuz, baita zorientasun pertsonalarekin ere.

Kontsumo kontziente eta arduratsua:

Egungo produkzio eta kontsumo eredia zalantzan jartzearekin abiatzen den hori da; pertsona gisa ditugun beharrak birplanteatzen dituen; gure ondasun, elikagai eta zerbitzuen kontsumo ohituren aldaketa eta murriztea planteatzen duena, sortzen dituen desberdintasunak kritikatu.

Elikadura krisia:

Elikagaien prezioak garestitzen diren munduko egoera, herritarren zati handi batek ezin dituelarik berauek eskuratu. 2008ko elikadura krisia medio, munduan elikatu gabeko pertsonen zenbatekoa 100 milioi hazi zen. Elikagaien prezioaren igoeraren zergati nagusiak hauek izan ziren: laborantza-erregai eta elikagaien poltsa espekulazioa.

Krisi ekologikoa:

Krisi ekologiko bat, inguruarena edo ingurumenarena; espezie edo herri baten giroak aldaketa kritikoak jasaten dituenean ematen da, jarraikortasuna ezegonkortuz. Arrazoi posible asko existitzen dira, besteak beste: aldaketa abiotikoa (Adibidez, tenperaturen igoera edo euri maila baxua), harraparitzaren presioa edo gainpopulazioa. Hauetako edozein kasutan bertan bizi den espeziearen beharrei lotutako giroaren kalitatean gradu-kentzea ematen da.

Zainketen krisia:

Kolokan dago zainketa lanen beharrak konpontzen zituen eredua. Emakumeak, ordaindu gabeko lan honetara haien denbora eta energia guztia eskaini diotenak, lan merkatu maskulinoan txertatzen hasi dira masiboki, zeinaren estruktura pertsonak inor zaindu behar ez izateko pentsatua dagoen. Modu honetan, merkatuaren logikaren eta zainketaren logikaren arteko tentsioa intentsitate askorekin azaleratzen da; eta emakumeak haien gorputz propioan hasi dira tentsio hau esperimentatzen, baten exijentziaren eta bestearen eszenatokiaren arteko borroka eremu bilakaturik. Gertaera hau politikekin eta "kontziliazio" deituriko legeekin konpontzea nahi da. Baina zaila izango da bateraezina dena kontziliatzea: merkatuen zentralitatea gizaritearen antolakuntzan, merkatu laborean gailentzen diren aginpideak beste edozein argumenturen aurrean erabat lehenestean oinarritzen da.

Produkzio beharrek denbora antolatzen dute, eta apelaezinak dira zainketa beharren aurrean. Iturria: Sira del Río.

Desazkundera:

Desazkundera pentsamendu politiko, ekonomiko eta sozialaren korrante bat da, produkzio ekonomikoaren kontrolatutako araudia murriztearen alde egiten duena, gizaki eta naturaren arteko oreka harreman berri bat ezartzea helburu duena, baina baita gizakien artean ere. Liberalismoak berezko duen hazkunde ekonomikoa helburu izatea ukatzen du, kontsumoaren eta produkzioaren murrizketa bat proposatuz.

Giza garapena:

Onurak areagotzen baten bidez gizarteak bere herritarren bizi baldintzak hobetzeko egiten duen prozesua da, oinarritzakoak eta osagarriak diren beharrak asetzen dituen, guztien giza eskubideak errespetatuko diren inguru bat sortuz. Nahi duena izateko edo egiteko gizakiak bere medio propioan duen aukeren kantitatea da. Zenbat eta aukera gehiago eduki orduan eta giza garapena handiagoa izango da; aukerak gutxiago badira, txikiagoa. Giza Garapena izakia mugitzen den inguruan bizi kalitatea neurtzeko modu gisa defini liteke ere bai; edota nazio edo lurralde bat saillatzeko orduan funtsezko aldagai bezala. 2010ean Norvegia izan zen 169 lurraldetatik hoberen baloratu zena, azken postuan Zimbabue kokatuz.

Garapen jasangarria:

Brundtlanden informearen arabera (1987), «presente dauden beharrak asetzeari ahalbidetzen duen garapen ereduak da, etorkizuneko belaunaldien gaitasuna haien beharrak asetzera konprometitu gabe». Beste era batean esanda, «baliabideen esplotazioa, inbertsioen orientazioa eta aldaketa tekniko zein instituzionalak armonian aurkitzen diren aldaketa prozesua da».

Zor ekologikoa:

Munduko herri guztiek mugatuta ikusten dituzte haien oinarriko eskubi-deak inguruaren hondamena medio. Industrializatutako herrialdeen alde-tik inguru-degradazioa eta planetaren baliabideen esplotazioa, beraz, ez da legbidezkoa, eta giza eskubideen urraketa ahalbidetzen du, bizi aukerak ahultzen baititu, baita beste herrietako bizi kalitatea ere. Iparraldeak bere bizi estiloa mantentzeko hein handi batean hegoaldeko lurraldeen menpe jarraitzen du. Ez da ereiteko aproposak diren munduko lurren banaketa de-sorekatua bakarrik, monolaborantzak (nekazaritzaren esportazioak) eragin ohi dituen kalte ekologikoen ondorioak ere badira.

Ekofeminismoa:

Ekofeminismoa sortzea ekarri zuten feminismoaren eta ekologiaren arteko lehen loturak 70eko hamarkadako feministen utopia literarioetan aurkitzen dira. Horietan definitzen da zapalkuntzarik gabe bizi diren emakumez osaturiko jendartea; eta horrek berarekin dakar gizarte ekologiko bat eraikitzea, zentralizazio-rik, hierarkiarik eta indar militarrik gabea; barne demokrazia duena; ingurumena gehien errespetatzen duten teknologien erabilera eta abar lehenetsiko duena.

Ekosozialismoa:

Sozialismotik eta ekologiatik egindako proposamen politiko batean datza; hau da, eredu sozio-ekonomiko bat eraikitzean zeinak justizia sozialaren al-darrikapenak jasoko dituen, biosferaren birsortzeko gaitasunekin. Pertsona guztien oinarriko beharrak bizitzaren erdigunean jarriko dituzten ereduak, demokratikoki zehaztuak eta planetaren muga biofisikoekin bat datozenak.

Ekologia:

Ekologia (grekotik «οἶκος» oikos=»etxe», eta «λόγος» logos=» ezagutza») ekosistemen biologia da (Margalef, 1998). Izaki bizidunak, haien inguru,

banaketa eta ugaritasuna aztertzen dituen zientzia da, eta bizidunen eta ingurumenaren arteko interakzioek propietate horietan nolako eragina duten ikertzen dituena. Inguruak barnebiltzen ditu tokiko faktore abiotikoen batura bezala deskriba daitezkeen propietate fisikoak; klima edo geologia kasu, edo habitat (faktore biotiko) horiek konpartitzen dituzten gainontzeko organismoak. Ekologiaren ikuspegi integratzaileak planteatzen du organismoen banaketan eta ugaritasunean eragiten duten prozesuen ikerketa zientifikoa dela; baita bizidunen eta energia edota materia fluxuen arteko eraldaketena ere.

Ekonomia soziala eta solidarioa:

Beste interesen gainetik lehentasun gisa, pertsonak, ingurumena eta garapen jasangarri zein sostengarria aintzat hartzen duen jarduera ekonomikoaren ikuspegia da. Ekonomia giza garapen jasangarri eta parte hartzailearen zerbitzura jartzea helburu duen alternatiba da; eraldaketa sozialerako, justiziaren eraikuntzarako eta bazterketa sozialaren aurkako borrokarako erreminta boteretsua izatea nahi duena. REASEk, erreferente gisa, Merkatu Soziala babesten du, irizpide etiko, demokratiko, ekologiko eta solidarioekin funtzionatzen duen ekonomia sozial eta solidarioko onura eta zerbitzuen produkzio, banaketa eta kontsumo sarea; ekonomia sozialeko enpresa eta erakundeek sortua kontsumitzaile indibidual eta kolektiboekin elkarlanean.

Ahalduntzea:

Beijingeko (Pekin) Emakumeen Munduko Konferentzian erabakitze gune eta botererako sarbide prozesuetan emakumeen parte hartzea areagotzeari erreferentzia egiteko sortutako kontzeptua. Egun, adierazpide honek beste dimentsio bat du bere baitan: emakumeek indibidualki eta kolektiboki duten boterearekiko kontzientzia hartzea, emakumeak pertsona moduan duten duintasun propioaren berreskurapenarekin zerikusia duena. (Berdintasunera-ko Hitzak. Oinarrizko Herriko Liburutegia). "Botere" hitza, testuinguru honetan

gizarteetan modu berean egoteko, konpartitzeko, eragiteko eta parte hartzeko modura ulertua da; ez beste pertsona batzuen gaineko botere bezala.

Eskubideen ikuspegia:

Garapen politikak aplikatzeko giza eskubideek eskaintzen duten marko kontzeptuarekin oinarritzen da, Estatuaren betebeharrak positiboetan, hain zuzen: egin beharreko guztia erabateko eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturala gauza dadin, ingurumenekoa barne (DESCA). Giza eskubideak Estatuaren politika publikoak gidatu edo orientatu ditzakeen programa bat bezala definitu eta aplikatzen dira. Eskubideen ikuspegiak baztertutako sektoreek boterea eskura dezaten lehen pausotzat du beraiek direla Estatuak behartu behar duten eskubideen jabe aitortzea. Kontzeptu hau txertatzean politiken elaborazio prozesuen logika aldatzeko ahalegina egin da, abiapuntua ez dadin izan gizarte-laguntza beharra duten pertsonen existentzia, prestazio eta portaera jakinak eskatzeko eskubidea duten subjektuena baizik (OIT; PNUD 2009).

Ekitate:

Genero ekitatea gizon eta emakumeen arteko trataera justuan datza, bakoitzaren beharren arabera. Kontzeptu horretatik aurrera erantsi litezke trataera berdinean edo ezberdinean, eskubideen, onuren, betebeharren eta aukeren alorretan baliokideak baldin badira. Lan-garapenaren testuinguruan, genero zuzentasunak meta giza emakumeen desabantaila historiko eta sozialak konpentsatzeko diseinatutako neurriak txertatu izan ohi du. <http://www.ifad.org/gender/glossary.htm>

Feminismoa(k):

Sexuen arteko eskubide eta aukera berdintasunaren defentsan etengabeko eboluzioan dagoen pentsamendu korrontea. Mundua, botere harremanak,

estruktura sozialak eta sexuen arteko harremanak ulertzeko modu ezberdin bat eratzen du.

Generoa:

Generoak sozialki eta kulturalki eraikitako rol, harreman, nortasun ezaugarri, jarrera, jokabide, balore eta eragiteko botere erlatiboaren gama hartzen ditu bere baitan, sexu bakoitzari modu ezberdin batean gizarteak ezartzen dizkionak (hauek propioak bailiran haiengan hartzen dituztelarik). <http://www.hc-sc.gc.ca/english/women/exploringconcepts.htm>

Aztarna ekologikoa:

«Herri baten aztarna ekologikoak beharrezkoa den luraren eta ozeanoen produkzio azalera islatzen du, lurralde honek kontsumitutako baliabideak eskaini eta haien hondakin eta bestelako hondakinak asimilatzeke» (Mathis Wackernagel).

Berdintasuna:

Genero berdintasuna postulatzetik abiatzen da; gizaki guztiek, nola gizonek hala emakumeek, haien gaitasun pertsonalak garatzeko duten askatasunetik; estereotipoek, genero rol zurrunek edo aurreiritziek mugatu gabe hautatu ahal izateko. Ez du esan nahi gizon eta emakumeak berdinean bilakatu behar direnik; haien eskubideak, ardurak eta aukerak ez dituela gizon edo emakume jaio izate hutsak baldintzatuko baizik. "ABC of Women Worker's Rights and Gender Equality", Geneva: ILO, 2000.

Patriarkatua:

Botere-gune eta kargu pisutsuak nagusiki edo eskusiboki gizonaen eskuetan uzten dituen gizarte antolatze sistema. Alicia Puleok hertsadurazko patriarkatuaren baitan bereizten ditu "Indarkeriarekin, legeen edo

ohiturazko arau zigortzaileen bidez, emakumeei onartu eta debekatzen zaiena hitzartzen dutenak” eta adostasunezko patriarkatuak, legearen aurrean berdintasun formalak agintzen duen tokia, honela definitzen duena: “Hein handi batean hedabideek transmititzen dituzten mendebaldeko garaikideak, irudi erakargarri eta mito boteretsuen bidez rol sexualak bultzatzen dituztenak”.

Genero ikuspegia:

Generoaren teoria abiapuntu duen lan egiteko ikuspegia, emakumeen eta gizonezkoen egoera aztertzea helburu duena, bien arteko harreman edukian eta botere harremanak zalantzan jartzean sakonduz; proposamen eraldatzaile, bidezko eta parekide batean oinarrituta. Hegoa

Genero politika:


Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko harremanak kontuan hartzen dituen politika da, eragite eremu guztietan haien posizio sozial ezberdinak aintzat hartzen dituenak, ekite-helmuga gisa gizonezkoen eta emakumezkoen arteko aukera berdintasuna helburu duena.

Birkokatzea:

Argi denez, tokikotasunetik ekoiztea da, nagusiki herritarren beharrak asetzeko balio duten produktuak; lokalki pilatutako aurrezkietatik finantzatutako tokiko enpresek sortuak.

Elikadura Burujabetza:

Elikadura burujabetza elikagai osasuntsu eta kulturalki egokiak, eskuragarriak eta modu jasangarri edota ekologiko batean ekoiztiak edukitzeko herrien eskubidea da; eta elikadura eta produkzio sistema propioa erabakitzeko eskubidea. Honek elikagaiak ekoizten, banatzen eta kontsumitzen dituz-

66 

tenak elikadura politikaren eta sistemaren bihotzean jartzean ditu, merkatu eta enpresen exigentzien gainetik. Horien interesak defendatzen ditu, eta etorkizuneko belaunaldiak barnebildu. 2007ko Maliko Nyéléniko Adierazpenean esaten denez, elikadura burujabetzak komertzio gardena sustatzen du, herri guztientzako diru-sarrera duinak bermatzen ditu; eta kontsumitzaileen eskubideak ere, haien elikadura propioa eta nutrizioa kontrola dezaten. Gure lur, lurralde, ur, hazi, abere eta biodibertsitatearen eskuragarritasun eta kudeaketa eskubideak elikagaiak ekoizten dituzten horien esku egotea bermatzen du. Lehtasuna ematen die tokiko ekonomiei, merkatu lokalei edota nazionaliei; eta abeltzainei, arrantza artizanari eta tradizioaren alde egiten duen artzaintzari boterea ematen dio; elikagaien produkzioa, banaketa eta kontsumoa kokatuz ingurumen, gizarte eta ekonomia jasangarriaren oinarrian.

Jasangarritasuna/Sustengarritasuna:

Espezie batek bere inguruko baliabideekin duen orekari egiten die erreferentzia. Hedaduraz, baliabide baten esplotazioari aplikatzen zaio beronen berrikuntzarako mugaren azpitik. Gizakiaren oparotasunaren ikuspegitik, 1987ko Brundtlanden Informearen arabera, jasangarritasuna egungo belaunaldiaren beharrak asetzean datza, haien behar propioak asetzeko orduan etorkizuneko belaunaldien gaitasuna sakrifikatu gabe.

Bizitzaren jasangarritasuna:

Apustu politiko bat da –eta, are, berebiziko deia– gure jardueraren erdigunean pertsonak eta planeta kokatuko dituen garapen eredu baten alde; gure eskubideen eta etorkizuneko belaunaldien jarduera onartzeko; zainketaren etikan oinarrituta. Globalizazio kapitalistaren homogenizazio eta hierarkizazio ahaleginak ez bezala, ez datza ekiteko marko itxi batean. Pertsona guztientzako lekua izango duen gizarte bidezko bat sozialki

adostutako eraikuntza ekonomiko, sozial eta kultural bat izan behar da, baita ingurumenarena ere; osatzen dutenen esperientzia, desio eta behar anitzei irekia.



6. Bibliografía



ABASOLO, Olga (2010). "Diálogo Mari Luz Esteban e Isabel Otxoa sobre el concepto de cuidados", CIP-Ecosocial Buletina, 10. zk, 2010eko urtarrila-martxoa. Hemen ikusgai: <http://www.fuhem.es/media/ecosocial/file/Boletin%20ECOS/Boletin%2010/DIALOGO%20Esteban-Otxoa.pdf>

CARRASCO, Cristina; BORDERÍAS, Cristina; TORNS, Teresa (eds.) (2011). "El trabajo de cuidados: Historia, teoría y políticas". Catarata: Madril

GONZÁLEZ PAZOS, Jesus, PEREZ ROJO, Puri eta EZQUERRO SÁENZ, Maite (2014). "Alternativas al modelo actual: Decrecimiento y Buen Vivir". Sua Edizioak: Bilbo.

FRASER, Nancy eta GORDON, Noa (1992) "Contrato versus caridad: una reconsideración de la relación entre ciudadanía civil y ciudadanía social» Isegorian, 6.zk, 65-82 orriak. Hemen ikusgai: <http://isegoria.revistas.csic.es/index.php/isegoria/article/view/324/325>

GONZÁLEZ, Jesús (2016). "El espejismo de la clase media". Hemen ikusgai:

<http://www.mugarikgabe.org/blog/2016/04/18/el-espejismo-de-la-clase-media/>

HOOKS, bell (1984) "Mujeres negras. Dar forma a la teoría feminista" VVAA, "Otras inapropiables: Feminismos desde las fronteras. Traficantes de sueño". Madril. (2004an gazteleraz)

69

LARRAÑAGA, Mertxe eta JUBETO, Yolanda. (2009). "¿Calma tras la tormenta financiera? Reflexiones desde la perspectiva de género", Lan Harremanak, 20-21: 31- 50.

LARRAÑAGA, Mertxe eta JUBETO, Yolanda (2011). "El Desarrollo Humano Local: aportes desde la equidad de género". "Cuadernos de Trabajo de Hegoa", 56. Zk, 2011ko maiatza.

MUGARIK GABE (2016). "Construyendo en colectivo desde Euskal Herria: Análisis y reivindicaciones para la construcción de una sociedad justa y equitativa basada en estilos de vida sostenibles". Hemen ikusgai: https://www.decrecimientoybuenvivir.info/wp-content/uploads/sites/4/2016/06/EHTikeraiki-CAS_WEB.pdf



PÉREZ, Amaia (2014). "Subversión feminista de la economía: Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida". Traficantes de sueños: Madrid.

PIKARA (2013). Zeinu hizkuntzako glosario feminista. Hemen ikusgai: <http://glosario.pikaramagazine.com>

RICH, Adrienne (1983) "Sobre mentiras, secretos y silencios". Bartzelona, Icaria.

(2005) "Artes de lo Posible, Horas y Horas", Madrid.

VARGAS MARTÍNEZ, Ana (2002) "El poder en el curriculum oculto de la educación." DOSALen, Pilar (koord.) (2002) "Construyendo la igualdad en el espacio público". Bizkaiko Foru Aldundia.

WWF (2010). Planeta Biziaeren Informea 2010. Hemen ikusgai: <http://awsas-sets.wwf.es/downloads/infoplanetavivo2010.pdf>



OHARRAK

- ¹ Bizitza Ona Bolivian erabiltzen da, Ekuadorren Bizitze Ona.
- ² Fernando Huanacuniri elkarrizketa, abokatu eta intelektual aimara. Boli-
viako Kanpo Arazoetako Ministerioaren Protokoloko Zuzendari Nagusia.
2013/12/04. Jesus Gonzalez Pazosek, Puri Perez Rojok eta Maite Ezquerro
Saenzek publikatua. “Decrecimiento y Buen Vivir. Alternativas al modelo
actual” (2014), Sua edizioak, Bilbao.
- ³ Ulertzen dut badirela genero eta modu anitzak bizitzeko, eta sentitzeko
edo pentsatzeko
- ⁴ Desiotasun kontzeptuaren inguruan: Ertamerikatik, Herri Hezkuntza eta
Ekintza Parte-hartzaileen lkerketaren testuinguruan, emakumeek hitz be-
rri baten proposamena egiten dute «beharren» ideiaaren definizioa berri-
tzeko, «desioetatik» bereizi gabe: «desiotasunak». Proposamen hau emak-
umeentzat «behar hitza etsai handitzat zutelako sortu zen: haien beha-
rrek beti zuten zerikusi haien senarrak zioenarekin existitzen bazen- edo
seme-alabekin, besteekin. Horregatik bizitza besteen desioengatik borro-
kan pasatzen zuten. Emakume horiek aldaketak desio eta borrokatzen zi-
tuzten eta ez zitzairen iruditzen prozesua beharren onarpen sinple bat izan
zitekeenik». (Miguel Ángel Martínez del Arco, Amaia Perez de Orozcorekin
komunikazio pertsonala, 2011ko abenduaren 9an). Amaia Perez Orozcok
aipatua (2014).
- ⁵ <http://ath-ele.com/eu/estadisticas/>
- ⁶ DMD – Heriotza duinaren eskubidearen aldeko elkartea.

7 Fernando Huanacuniri elkarrizketa, Jesus Gonzalez Pazosek, Puri Perez Rojok eta Maite Ezquerro Saenzek egin. "Desazkundera eta Bizitze Ona". (2014) op. kt.

8 Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmenean (PIDESC) jasota dauden eskubideak dira, besteak beste: gizon eta emakumeen arteko berdintasuna; lanerako eta gizarte segurantzarako eskubidea; pertsona eta familientzako bizi maila on baterako eskubidea, elikadura, arropa eta etxebizitza barne; existentzia baldintzen etengabeko hobekuntza, osasun fisiko eta mentalerako eskubidea, hezkuntza eskubidea, bizitza kulturean parte hartzeko eskubidea, aurrerapen zientifikoaren onurez gozatzeko eskubidea eta ingurumen eskubideak.

9 Lengoia "bizi garen errealitate soziala sinbolizatzen eta islatzen duen bitarteko esentziala da", horregatik baldintzatzen du horren bitartez egiten dugun irakurketa eta interpretazioa. Ana Vargas Martinez (2002), Pilar Dosalek publikatua (2002: 100). Horregatik aldarrikatzen dugu bizitza alaiak nahi ditugula.

10 2008an Konstituzioan ingurumen eskubideak aitortu zituen lehen herrialdea bihurtu zen Ekuador, beronen bizi zikloak, egestasun, funtzioak eta eboluzio prozesuak mantenu eta birsorkuntza aldetik bermatuz horrela. 2010eko apirilaren 20an, Cochabamban (Bolivia), Aldaketa Klimatikoaren eta Ama Lurraren Eskubideen inguruko Herrien Mundu Konferentzian, 35.000 pertsona baino gehiagok onartu zuten Ama Lurraren Eskubideen Adierazpen Unibertsala. Adierazpen honek natura eskubidea planteatzen du, ingurumenaren birsorkuntza eta berriztapen integralerako eskubidea existitzea eta errespetatzea, hain zuzen.

Aurkezten dituzten aldarrikapenak lagin bat baino ez dira. Dokumentu osoa hemen ikusgai: www.decrecimientoybuenvivir.info/wp-content/uploads/sites/4/2016/06/EHtik-eraiki-CAS_WEB.pdf







MUGARIK GABE
www.mugarikgabe.org

¿Qué mundo
queremos?
hitzekoa de seres, y no de teneres
zein izakiek, de mujeres
ez edukitzeak,
osatzen dutena, libres

Zure ekarpenari esker lanean jarraitzen dugu.

Mugarik Gaberekin kolaboratu dezakezu
urteroko kuota batekin,
diru dohaintza puntualekin edo elkartasun legatu batekin.
Horrela, hezkuntza eta lankidetzarekin bitartez,
persona guztientzako justua den mundu baten alde
edertzen egingo duzu.



Diru-sartzeak web gunean edo honako kontuan:

FIARE Banca Etica ES36 1550 0001 20 0000688622

LABORAL KUTXA ES71 3035 0083 22 0830701234